# ARRASATE PRESS

Arrasate 1991ko Otsailak 22, 96. zenbakia
Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



**ANDONI VILLAR, Besaide M.E.ko lehendakaria**

# Beroarena kenduta

**Zubillagako abere-hiltegia**



PISUZKO ARRAZOIAK.




Zure RENAULT EXPRESSak 90.000 pta. gutxiago MECA Tailerretan

# HIRU S. A.
# MEKANIZAZIOAK

- Doitasunezko mekanizazio plano eta langileen arabera
- Fresatzeko makinak
- Zenbakizko kontrola
- Mekanizazio-zentroak
- Tornuak
- Artezko makinak, etab.

Zaldispe kalea 10, ARRASATE
Tfnoak: 79 67 80 / 79 05 61
Posta kutxa 95. Telefax: 79 80 97

Goiain Industrial Poligonoa. 24 Apartatua
Tfnoa: 945; 45 54 28 / 45 54 54 / 45 54 53
Telefax: 45 54 74, 01170 LEGUTIO

HERRI Irratia
Radio POPULAR
GIPUZKOA

# EZKONGAIAK 91



**BIKOTE SARITUAREN OPARIAK / EZKONGAIAK 91 SARIKETA**

| SARIA | EMALEA |
|---|---|
| *Emaztegaiaren jantzia* | *Bayón* (Donostia) |
| *Senargaiaren jantzia* | *Berriki* (Zumárraga) |
| *Canarias-era 8 egunerako bidaia 3 izarreko Hotelean eta dena ordainduta* | *Garoa bidaiak* |
| *Ezkontza egunerako cava* | *Codorniu* |
| *25 ontzako THOMSON telebista* | *Urrategi merkatalekua* (Azkoitia) |
| *Erosketarako ordain-txartela* | *Ganzarain haltzariak* (Azkoitia) |
| *Ezkongaien eraztunak* | *Agirre bitxidenda* (Eibar) |
| *Aluminiozko 4 lehio ala bainu manpara* | *Oti aluminozko aroztegia* (Eskoriatza-Gazteiz) |
| *Erosketarako ordain-txartela* | *Skramer* (Gasteiz) |
| *Grila duen mikroonda labea* | *Zubiarte sukal-haltzariak* (Azkoitia) |
| *Erreportaia* | *Fotokai* (Donostia) |

ZOZKETA: MARTXOAK 5, 11'30etan

Aurten ezkondu behar baduzu, bete txartel hau eta bidali
LOIOLAKO HERRI IRRATIA (AZPEITIA)-ra, Martxoaren 5erako

Izen-deiturak Helbidea Herria Telefonoa

SENARGAIA.........................................................

EMAZTEGAIA.......................................................

Ezkontzako eguna, gutxi gora behera..............................

**ARRASATE PRESS**
**ASTEKARIA**

**Argitaratzailea:**
Arrasate Press taldea (AED)
Azoka kalea 1, 20.500 ARRASATE.
Tfnoa: 77 05 65

**Laguntzailea:**
Arrasateko Udala

**Zuzendaria:**
Joxe Aranzabal

**Erredakzioa:**
Beñardo Kortabarria. Arantzazu Loidi

**Publizitatea eta harpidetzak:**
Josune Biteri
Tfnoa: 77 08 15

**Maketazioa:**
Goio Arana

**Erredakzio-kontseilua:**
Jose Felix Diaz de Tuesta, Harry Zaraia, Iñaki Mendiguren

**Kolaboratzaileak:**
Josemari Velez de Mendizabal, Mikel Irizar, Karmele Zuazubiskar, Patxi Montero, Juan Martin Elexpuru, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Gerardo Markuleta, Estepan Plazaola, Jesus Mari Garai, Juanito Leibar, Jerardo Elortza, Blanka Jauregi, Klarion Taldea, Joseba Vallés, Karmelo Uribarren, Iñaki Aranburu, Hankamotz, Maite Toledo, Atalataikoan, ASA taldea, Xabin Arrieta.

**Inprimategia:**
Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

**Banaketa arduraduna:**
J. L. Arejolaleiba



**Copyright:**
ARRASATE PRESS



**Tirada: 7.000 ale**
**Lege-Gordailua: 1124/88**
**ISSN: 0214-4654**
**Frankeo kontzertatua: 37-60**



**ARRASATE PRESS**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.


# Lehengo lepotik

Badirudi lehorte luze baten hatzaparretatik irteten ari garela. Azkeneko bizpahiru urteotako euri ezak egarri utzi zituen gure lurrak, gure urtegiak. Sikuteak jokoz kanpo harrapatu omen gintuelarik, ezintasunean malko eta negar merke isuri genituen, ohi baino sarriago. Daramagun neguak lehengoak ekarri dizkizu gogora, euri, hotz eta elur ugari eskainiz. Eguraldiarena ez da jadanik elkarrizketetako gai. Ardura desagertu ei da gure bizimodu arruntetik eta soro eta larreak busti bustita dakuskigun neurrian iturriak zabal zabalik uzten ditugu, ur jarioak iraganeko grinak berpiztea itxarongo bagenu bezala.

Balantzaren beste platertxoan -solasgai legez ere lehortearen hutsunea betetzera datorrelarik- ditxosozko gerra horrek egunero egunero sortzen dituen naturaren aurkako atentatuen egiaztapena dago. Natura gizadi eta, oro har, izadi bezala ikusita, noski. Horratx, besterik gabe, ordena berriaren zaintzaile guztiz ahaltsu izan nahi duenaren pekatu larriak, natura-lege guztien gainetik. Modernismoaren izenean (?) ikerkuntza plangintzek porrot izugarria izan dute, halabeharrik, urteak aurrera joan arren oraindik ere botereak behartsuen bizkar eraikitzen bait du bere dorrea.

Lehorteak izadiaren aurkako erasoari laga dio lekua gure elkarrizketetan, baina bata nahiz bestea sorburu berberako ondorioak ditugu, ezpairik gabe. Zientzia gizonen izpiritua orekatutik aldentzen den heinean, ingurugiroaren etorkizuna beltzago agertzen da, orain arteko ereduek froga dezaketenez. Garapenak gure mundu hau gerra -etekintzat hartzen duen unetik, madarika dezagun garapena, izan ere naturaren engranaia hondatuta geratzen denean arriskutan ipintzen ari bait dugu guztion bizitza. Gizonak ezin dezake -berez- unibertsoaren eraikuntza aldateraz. Oker daude alderantziz uste dutenak.

Garbi dago: erantzukizunik handieneko garaian ari gara. Bere jakinduriaz itsututa dagoen gizonari bere gaixotasunaren berri eman behar zaio, harek bere burua jainkotu egingo ez badu. Erabateko arrazoiaren jabe sentitzen dena, gizadiarentzako arriskurik gogorren bihurtzen da. Lehortea, naturaren suntsipena, gizonaren beraren degradapena... iturri berdineko emaitzak ditugu. Absolutuaren erokeria.

*Josemari Velez de Mendizabal*




**ETXEPARE - BILINTX**
**LIBURUDENDA**
*Liburuak eta diskoak*
Ibargarai 12, Tfnoa: 76 40 50 BERGARA

gili gili
Iturriotz 9, Tfnoa: 79 94 57

HIRE
Liburu eta oparidenda
Iturriotz 4, Tfnoa 79 14 84

BERANGO
Aroztegia orokorra
sukaldeko altzariak
kanpo eta barruko ateak
Legarreko pabiloi industriala
(behea) Tfno: 79 01 92

PAPER PINTATUAK - PINTURAK
A. ZANGITU
Tfnoa: 79 91 82 ARRASATE
Tfnoa: 76 19 54 BERGARA

BELUN taberna
Lagunarte bikaina
Garagarza auzoa z/g Tfnoa: 79 61 14

ARAMAIO
okindegia
Maisu Guridi 3,
Tfnoa: 79 36 46

## Urkuluren fluorazioa

1988ko martxoaren 1ean BOEn argitaratutako Dekretu batean Eusko Jaurlaritzak 30.000 biztanle baino gehiagoko herriei edateko ura banatzen dieten ur-hornitzaile eta banatzaileak ura fluoratzera behartzen ditu. Deba Garaiko Mankomunitatea hornitzen duen Urkuluko urtegia hor sartzen da.

Neurri honen betebeharra umeen hortzetako kariesa zaintzea da. Baina neurri hau ez dator bat mundu osoan zabalduta dagoen eritziarekin. Nobelsaritu batzuk ere kontra daudelarik. Izan ere urari elementu toxiko bat gehitzea izugarrizko hanka sartzea da, ez bakarrik ez duelako ezertarako balio, hiritarren bizitza ere arriskuan jartzen duelako baizik.

Egia bada ere, “Derrigorrezko Medikazio Masiboa” deritzan hau urteetan zehar poliki-poliki hedatzen joan dela eta munduko hirurehun milioi biztanleri ezarri zaiela egia da era berean, EEBBetan duela 40 urte ezagutu zen ahoko metodo profilaktiko hau 1970erako 500 hiritan baztertua zegoela eta Europako zenbait naziotan uraren fluorazio artifiziala debekatua dagoela.

Neurri honen eraginen artean, giltzurrinetako eta gaixotasun koronarioen areagotzea, mongolismo kasuen ugaltzea, arrisku genetikoa edo minbiziaz jotako biztanlegoaren portzentaiaren igotzea direnean, ezin da erreflexioa eta debatea itxi.

Prudentziaren neurririk oinarrizkoenak bide hau baztetzea aholkatzen du edo gutxienez era esperimental eta kontrolatu batean erabiltzea. Dena dela, ezin da onartu dekretu bidezko medikazio masibo eta derrigorrezkoa. Eta Euskal Herrian planteatu den eran gutxiago oraindik.

*Arrasateko Eguzki*

## Arazo teknikoak direla eta

Azpian sinatzen dugun ATB-ko langileok, zera adierazi nahi dugu. Azken aldi honetan, eta ATBko ikusleek ikusteko aukera izan duzuen bezala, zenbait arazo tekniko izan ditugu. Arazo guzti hauek guk prestatuko programazioa zuengana behar bezela ez heltzea sortarazi dute. Guzti honen aurrean, lehenik eta behin, eta ATBn lan egiten dutenen izenean, bakarmenak eskatu nahi dizkizuegu.

Dena dela, zera adierazi nahi genizueke, azken aldi honetako arazoak gure menpe ez dauden arrazoiek sortarazi dituztela, eta beraz, ez daukagula guk arazo hauen erantzunkizunik.

Besterik gabe, eta arazo tekniko guzti hauek laster batean konponduko direlakoan, agurtzen dira.

*ATB-ko langileak*

## R. Ugalderi

Ez bagara arazo berberaz ari, gerra tipografiko soilak ez dit bat ere interesatzen. Dena den, eta amaitzeko, bihotzerrea zaindu.

*M. Irizar*

Deustuko Unibertsitateko Soziologia fakultateak inkesta egingo du Mondragoen Arrasate Pressi buruz. Lana **Jose Manuel Bergaretxe** mondragoetarrak zuzenduko du. Datorren astelehenetik aurrera etxez-etxe datuak biltzera joango diren hiruzpalau lagun izango ditu, tartean **Iratxe Vazquez**, **Ana Belen San Martin** eta **Karmele Kosta**. Lehenengo inkesta Lan Kide Aurrezkiaren marketing sailak egin zuen orain urtebete t'erdi.



# Arrasateko osasun-zerbitzuaz gustora?



**Jose Maria Morales (Pentsioduna)**

Batzuk kexatzen dira, baina nik ez daukat inongo kexarik.Emazteak luzaroan darama gaixorik, eta orain Gasteizen badago ere, hemengo medikuak bidalita izan da.



**Engracia Carmona (Etxekoandrea)**

Nik ez daukat kexarik. Behar handirik ere ez dut izan, baina orain artean behintzat



**Belen Murgiondo (Irakaslea)**

Beharra izan dudan neurrian, gustora, baina jendeak beharra izan duenean hainbat arazorekin aurkitu da, pertsonal gutxi edo eskasa, txandak eskatzeko garaian denbora luzez itxaron beharra. Oraindik konpondu beharreko gauzak badaudela iruditzen zait.



**Felix Elortondo (Langabezian)**

Aspalditik ez dut mediku beharrik izan, eta zer esan dezaket? Gauza batzuk ez dira denon gustora egongo, baina beno.


LENIZ
AUTO ESKOLA



GIDABAIMEN GUZTIAK ZURE ESKU!
ARRASATE - ESKORIATZA

KOPIOTXOA
Fotokopiak
Planu-Erreprodukzioak
Enkuadernazioak
Zarugalde 28, Tfnoa: 79 17 82
ARRASATE

MemesA
79 42 22

HORTZ-KLINIKA
GIPUZKOA

ENDODONTZIA
EZARPENAK
HORTZ ESTETIKA
PROTESI FINKOA
ETA ALDAGARRIA
KIRURGIA
ORTODONTZIA
ODONTOLOGIA OROKORRA

Marisa Porta Peña Dk.a
Gabriela Porta Peña Dk.a
Pablo José Mármol Dk.a
ODONTOLOGOAK

BERGARA
Simon Arrieta Plz. 3,
Tfnoa: 76 38 54

ZUMARRAGA
Soraluze 1,
Tfnoa: 72 46 47

ARRASATE
Iturriotz 7 bis, behea,
Tfnoa: 79 73 88

## BEHARREZKO TELEFONOAK

**ERITETXEAK**
Arrasateko Eskualde-Ospit. ..... 79 53 00
Igualatorioa ..... 79 05 00
Santa Agedako Ospitalea
(gizonak) ..... 79 39 00
(emakumeak) ..... 79 44 11
Buru osasunerako zentrua ..... 79 90 11

**GURUTZE GORRIA**
Bergara ..... 76 55 76

**DYA**
Antzuola ..... 76 62 91

**ANBULATORIOAK**
Arrasate (Larrialdiak) ..... 79 13 57
(Txanda hartzeko) ..... 77 03 46
77 07 21
Oñati ..... 78 08 52
Eskoriatza ..... 79 98 58
Aretxabaleta ..... 79 74 58
Aramaio ..... (945) 45 51 16

**ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako anbulantziak ..... 45 87 44

**UDALTZAINGOA**
Oñati ..... 78 04 11
Bergara ..... 76 14 69
Arrasate ..... 79 14 39
Aretxabaleta ..... 79 10 52
Eskoriatza ..... 79 03 22

**ERTZAINTZA**
Arrasate ..... 79 71 99

**SUHILTZAILEAK**
Udal taldea ..... 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile
burua ..... 79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea .. 78 28 00

**MATXURAK**
Urak (udal zerbitzua) ..... 79 09 00
Elektrizitatea (Iberduero) ..... 79 05 81
Gasa ..... 900 40 05 23
..... 79 78 44
..... 79 76 78

**GARRAIOAK**
Taxiak ..... 79 12 22
P.E.S.A. ..... 79 14 19

**HIRUGARREN ADINARENTZAKO ZENTRUAK**
Iturbide Egoitza ..... 79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza ..... 79 81 57

**KONTSUMITZAILEARENTZAKO INFORMAZIOA**
Deba Garaiko Kontsumitzaile eta
Erabiltzaileen Elkartea ..... 79 87 77



## *22 OSTIRALA*

• • •

- Zinea: Alai. "Monsieur Hire", 7 eta 9.30etan.
  Amaia. "Supervixens", gaueko 10.30etan.
  Novedades. "Aracnofobia", 10.30etan.
- AEDren Batzar Orokorra, Monterronen arratsaldeko 7etan.
- Goardiako farmazia: Irizar, Erguin.

## *23 LARUNBATA*

• • •

- Zinea:.Alai. "Menphis Belle", 5, 7.30 eta 10.30etan.
  Novedades. "Aracnofobia", 5 eta 7.30etan.
- Zuhaitz eguna, Garagartzan, goizeko 11.30etan.
- Organo kontzertua, arratsaldeko 8etan.
- Bertso saioa, Eskoriatzan, Lizaso, Murua, Lopategi, Lazkano, Mañukorta, eta Jon Sarasua bertsolariekin, gaueko 10etan.
- Goardiako farmazia: Amezua, Santamaina..

## *24 IGANDEA*

• • •

- Zinea:Alai. "Menphis Belle", 5, 7.30 eta 10etan.
  Novedades. "Aracnofobia", 5, 7.30 eta 10.15etan.
- Goardiako farmazia: Aurora Ruiz, Maala.

## *25 ASTELEHENA*

• • •

- Zinea: Alai. "Menphis Belle", 7 eta 9.30etan.
  Novedades. "Aracnofobia", 7.30etan.
- Goardiako farmazia: Morales, San Andres.

## *26 ASTEARTEA*

• • •

- Zinea: Alai: "Menphis Belle", 7 eta 9.30etan.
- Goardiako farmazia: Azkoaga, Ferrerias.

## *27 ASTEAZKENA*

• • •

- Hitzaldia, "Etorkizuna: Gizarte orokorrean eta Euskal Herrian", Monterronen arratsaldeko 7etan.
- Goardiako farmazia: Español, Iturriotz..

## *28 OSTEGUNA*

• • •

- Haratuzteak 91 argazki erakusketaren azken eguna, Monterronen.
- Goardiako farmazia: Corcuera, Musakola.

## Kirol Agenda

### *FUTBITOA*

• • •

- Zaldibarko futbito txapelketaren barne 12 partidu, larunbat eta igandea bitartean.

### *ATLETISMOA*

• • •

- Euskadiko kros txapelketak Almen inguruan, goizeko 10etatik aurrera.

### *FUTBOLA*

• • •

- Atxabalpen Mondra eta Gasteizeko Aurrera taldeen arteko partidua, igandean arratsaldeko 4.30etan.
- San Andres eta Aranbizkarra taldeen arteko partidua, Atxabalpe ondoan, igandean goizeko 11etan.

### *ESKUBALOIA*

• • •

- Arrasate kirolak-La Salle Bilbo, Musakolan, larunbatean arratsaldeko 6etan.

## Liburuak

**• Euskaldunon Gida**

Artez euskara zerbitzuak Euskal Zerbitzu, profesionari eta merkatarien gida kaleratu du, euskaraz bizi ahal izateko lagungarri izan dadin. Izan ere, liburuxka honen bidez, mediku bat behar duzunean, erosketaren bat egin, asegurua kontratatu... gidan begiratu eta segu-




ru aski aurkituko duzu behar duzun porfesionari euskalduna, merkataria edo informazioa. Horrezaz gain, Euskal Herri guztiko posta kode guztiak ere bertan aurkitu ahal izango dituzu, herriz herri eta kalez kale.



# ERAKUSKETA

## Emakumeen lanak

Ostegunean hasi eta otsailaren 28a bitartean, Arrasateko emakumeek eginiko eskulanen erakusketa zabalik dago, Emakumeen Asanbladak San Juan auzoko etxabehean duen egoitzan. Pintura, eskultura, egur landua, gakorratza, makramea, larrua, argazkia, marrazkia eta zeramika izango dira, matxoaren 8a edo Emakume Langilearen Naziorteko Egunaren inguruan Emakumeen Asanbladak antolatu dituenen artean.

Denborapasa bezala eskulana aukeratu duten emakume arrasatear askoren lanak kaleratu dira egunotan, eta antolatzaileen helburua horixe izan da hain zuzen, emakume artista askoren lana, behar bezala baloratu eta ezagutarazi gabea, herritarren aurrean jartzea, eta era berean, herriko emakumeek zenbat aktibitate ezberdinetan parte hartzen duten erakustea. Ordutegia, lanegunetan arratsaldeko 6.30etatik 8.30etara eta eguerdiko 12etatik 2etara eta 6.30etatik 8.30etara jaiegunetan.

## Antzerkia

Basauriko Udal Kultur Etxeak Eskarabila Teatro Minimoaren II. saria plazaratu du. Norberaren edo taldearen izenean aurkez daitezke proiektuak, curriculum vitaea, obraren izenburua eta librettoa eta muntaketaren planteamendu artistiko eta teknikoak ongi zehazturik bidali beharko dira. Martxoaren 22an amaituko da, eguerdiko ordu biak aurretik, eta apirilaren 8an emango da jaki-



tera epaimahaiaren erabakia. Aurkeztutako proiekturik onenak 500.000 ptako saria jasoko du.

## Ihardunaldiak

**Distrofia eta Eritasun Neuromuskularrak**

Gipuzkoako Gutxitu Fisikoen Federazio Koordinatzaileak, Distrofia eta Eritasun Neuromuskularrei buruzko Ihardunaldiak eratu ditu, datorren martxoaren 2an eta Donostian. Gaixotasunok dituzten pertsonentzat nahiz euren familiartekoentzat izango da. Eritasun Neuromuskularren barruan sartzen dira honako gaixotasunok: distrofia muskular eta miotonikoak, jaiotzatiko miopatia zein metabolikoa, bizkarmuin atrofiak, polineuropatiak, miasteniak eta abar.

Informazio gehiago nahi izanenz gero, edo izenemateko orria betetzeko Udaleko Gizarte Ongizate sailera joatea besterik ez dago , edo 79 09 00 telefono zenbakira dei egin.

## Poesia

Gerraren Aurkako Poesia emanaldia burutuko da otsailaren 28an Monterrongo areto nagusian. Gerardo Markuleta, Koldo Rodriguez, Juan Luis Lopez Castro eta beste zenbait ikasleren eskutik, mundu guztiko eta garai guztietako poemak errezitatuko dira, guztiak ere gerraren aurka edo mezu bakezalearekin. Poema errezitaldiari laguntzeko musika ere izango da. Monterronen arratsaldeko 6.30etan.

## Hitzaldia

Etorkizuna gaia aztertuko duelarik, Federiko Krutwig euskaltzainak hitz egingo du, gizartea orokorrean eta Euskal Herria bereziki jorratuaz. AED elkartea izango da hitzaldi horren antolatzaile, eta otsailak 27 asteazkena, arratsaldeko 7etan izango da, Monterron jauregian.

## Bertsolaritza

Eskoriatzako Udaleko Kultura Batzordeak antolaturik, Bertso jaialdi erakargarria izango da Eskoriatzako zineman , otsailak 23 larunbata, gaueko 10etan. Saioa osatuko duten sei bertsolariak honako hauek izango dira: Sebastian Lizaso, Jon Lopategi, Iñaki Murua, Ima-



nol Lazkano, Mañukorta eta Jon Sarasua. Gutzi horien lana bideratzeko, Nikolas Segurola izango da gaiakk jartzen.

**“Baina Arrasate izan zen aukeratutako plaza, eta ez kapritxoz: ‘Erlazio handia dago klub bien artean. Futbol eskola ez daukagu alperrik hemen. Gainera Arrasaten intentsitate bereziz bizi izaten da Errealarekin zerikusia duen guztia” (…) “Atzo Arrasaten gizon zoriontsurik izatekotan, Jose Luis Etxebarria, Mondrako lehendakaria izan zen bat. Txuriurdin izateko bidetan dauden mutikoekin Patxi Arrizabalaga egiten ari den lanaz eta Erreala-Mondraren arteko loturaz hitz egin zigun ‘lehendakariak’. Taldearen zilar eztaietan Errealak esku hartzeko posibilitateaz ere hitz egin zigun, egutegiak utzi eta lehen mailako beste talderen batekin jarriz gero, beti ere. Data, ekainak 16, seguruenik”.**

*(Mañu de la Puente kazetariak DEIAn)*

**“Gobernu berriak, jendaurreko lehen agerpenetan denak harrituta utzi dituen Ekonomia kontseilaria du, adibidez. Karmen Gallastegik ulergarri egiten ditu teoria ekonomikoko mila gai lehor, berak Unibertsitatean urte askotan azaldu eta orain praktikara eraman nahi dituenak”.**

*(Ramon Mur kazetariak El Correo egunkarian)*

**“Muga, aurriritzi eta hizkuntzen gainetik, *Ez da posible* diska serio, zorrotza eta zaila da. (…) Ezohizko altuera poetikoduna, Ruper Ordorikaren konfirmazioa da *Ez da posible* gure musikako poeta handi bezala, imaginen erabilpenarengatik, sugeritzeko duen erraztasunarengatik, eta esaldi bakarrean mikroskopikotik unibetsalera pasatzeko duen gaitasunarengatik. *Ene begiek*-en kantatzen duen moduan, mendea eta segundua zeharkatu nahi uzteagatik”**

*(Nacho Saez de Tejadak El País egunkarian)*

**Dentisten ikuspegitik, mesedegarria al da ura fluoratzea?**



Urak fluoratzearen alde nago, eta dentisten artean orokorrean ere eritzi hori dago, gure elikadurarekin ez bait dugu nahiko fluor hartzen. Badira metodo batzuk fluorra janariarekin batera hartzeko, adibidez gatz fluorizatua hartzea, edo teak ere badauka fluorra, baina hemen ez da asko hartzen. Umeei fluor pastilak agintzen dizkiegu,dosi jakina adinaren arabera, baina uretako fluor kantitatearen arabera dosia txikitu edo fluorra hartzeari utzi egiten zaio. Fluor gehiegi hartzeak ere fluorosisa sor dezake, baina kantitate horietara iristea oso zaila da.

Bestalde, teknikoek jakingo dute ur litro bakoitzari zenbat fluor bota behar zaion, eta kontrola eurek eramango dute, kloroarekin bezala. Arrasateko umeen artean dagoen karies arazo larriarengatik konponbidea izan daiteke uraren fluorizazioa, gaur egungo dieten ondorioz oso gaixo bait daukate umeek ahoa. Komenigarria da, bestalde, nagusiei ez bait die kalterik egiten dosi horretan urtetan fluorra izateak, eta umeentzat mesede handia da. Nagusiei fluor kolutorioa ematen zaie, erabilpen topikokoa.

Haginaren konposizioan mineral batzuk daude, eta fluorarekin fluoropatitak sortzen dira, esmaltearen konpuestoan sartzerakoan gogorrago bihurtzen dira, eta azidoek ez dute hain erraz birrintzen hagina. Nik ura fluoratzeari buruz entzun eta irakurri izan ditudan gauza guztiak aldekoak dire

*Ane Maite Iriarte, haginlaria.*

FAGOR
TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA
GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN
ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA

PEÑACOBA
Auto-Eskola
Zarugalde 46,
79 14 01
ARRASATE

MIREN
APAINDEGIA
Zarugalde 23, 2. Ezk.
Tfnoa: 79 96 90 ARRASATE

## Elgeta

•Elgetako Udalak astearteaan Bittore Aierbe atxilotuaren aldeko mozioa onartu zuen aho batez. Onartutako mozioak amnistia osoa, preso guztien askatasuna, eta deportatu eta errefuxiatuak Euskadin libre bizitzea eskatzeaz gain, Bittore Aierbe berehala askatzea exijitzen zuen. Era berean, indar erre-presiboek Euskal Herritik alde egiteko eskaria ere egiten zuen mozioak, eta Udalak Bittore Aierberen egoeraz jarraipen bat egitea.

## Antzuola

• Amaia Zabaleta antzuolarrak kadete mailako Euskadiko txapelketan, luzera jauzian, txapelduna izatea lortu zuen. Amaiak 5,18metroko jauzia egin zuen, eta marka horri esker martxoaren 2an eta 3an Espainiako txapelketan izango da.

Euskadiko Txapelketa berean Julen Garitanok bigarren postua lortu zuen, hiru kilometro martxako frogan, 16´03"ko denbora eginez.



## Aretxabaleta

• Fekix Iñurrategi, Jesus Arregi, Joseba Egibar, eta Alberto Iñurrategi atxabaltarrak, eta Iñaki Garijo iruñearra Makalu mendirako espedizioa prestatzen ari dira. Makalu mendiak 8.481 metro ditu eta atxabaltarrek udaran joateko asmoa daukate, Monzoia bukatutakoan eta haize hotzak hasi aurretik. Aretxabaletatik Makalurako espedizioak 4.945.000 pezetako aurrekontua dauka, eta seguruen bost mendizaleek laguntza ugari beharko dute diru-kopuru hori bildu ahal izateko. Makalura igotzen duten gehienek oxigeno beharra izaten badute ere, atxabaltarrek printzipioz oxigeno barik igotzeko asmoa daukate.

• Ohi denez, datorren martxoaren 1ean Aretxabaletako jubilatuen eguna egingo da. Eguerdiko ordu batean Agustinoen komentuan egingo den meza, eta ondoren Taberna Berri jatetxean burututo den bazkaria euneko ekintza aipagarrienak dira.

## Bergara

• Maria Eugenia Gracia, Pedro Belastegi, Maite Guridi, Bittor Oregi, eta Luis Rodriguez atxilotu zituen Goardia Zibilak joan den larunbatean. Atxiloketen ondoren, hainbat mobilizazio egin ziren, igandeko manifestaldian 1.000 pertsona inguru ibili zirelarik.

Komisaldegian egon ondoren Maite Guridi eta Pedro Belastegi senar-emazteak, gartzelara eramateko agindua eman zuen Epaitegi Nazionaleko epaileak. Epaile berak gainontzeko atxilotuak komisaldegian egun gehiago edukitzeko erabakia hartu zuen.



Mondragonesa Grafikagintza
Paperdenda. Mahaigaineko tresnak
Olarte 10, Tfnoa: 79 12 63

ZUBIZARRETA TAILERRAK
Gipuzkoa Etorbidea 22,
Tfnoa: 79 15 65 ARRASATE

Lore lurrindegia
Olarte kalea 10. Tfnoa: 79 14 99 ARRASATE

FELIPE MADINA ZURAK
Zarugalde 40, Arrasate 79 13 78

**Besaide**

Besaide Mendizale Elkarteak, 1991ko federatu karnetak iritsi direla jakin azari nahi die bazkide federatu guztiei. Txartelok jasotzeko pasa daitezela elkartearen lokaletik, asteartetan 7.30etatik 8.30etara.

**Europa 93 Plana**

Europa 93 plana datorren martxoaren erdi aldera iritsiko da Arrasatera eta 13tik 20ra bitartean izango da ikusgai Monterron jauregian. Erakusketa horrek, Autonomi ekartean hurrengo urteetan egin asmo diren azpiegitura lanen berri ematen du, errepide, trenbide, telekomunikazio eta lan hidraulikoenak besteak beste.

**Azoka**

Azokako saltzaile ibiltarien eta alkatearen artean aste honetan egitekoa zen bilera atzeratu egin da berriz ere, eta datorren asteartea, hilak 26, arratsaldeko 5etarako jarri dute zita, bien artean azokako postuen subastak gaur egun duen egoerari erdibideko irtenbidea bilateko asmoz.

**Garizuma**

Garizuma dela eta, epe guzti horretarako taldeko otoitzaldiak antolatu ditu San Juan Bataiatzailearen parrokiak, astero. Otoitzaldiok ostegunero izango dira aipatu elizan, gaueko 9etan.

**Korrika bilera**

Arrasateko Korrika batzordea antolatzeko, astelehenean, hilak 25, izango da bilera, arratsaldeko 7etan Monterrongo hitzaldi aretoan. Euskararen aldeko ekintza horretan parte hartu nahi duten guztiei luzatzen zaie bilerarako deia. Aurten Gasteizen abiatuko da Korrika martxoaren 15ean, eta Baionan bukatuko, 24ean, 2.110 kilometro egin ondoren.

# Txandaka

## ZINEGOTZI BERRIEK EUSKARAZ ERE BAI

Maiatzeko Udal Hauteskundeak gero eta gertuago daudenez, sarritan aipatu izan dugun zertxobait gogora araztera gatozkizue oraingoan ere.



Amaia Jauregi-Arraburu (*)

Aukera izan dugun guztietan Udal Gorporazioko kideak euskaldunak izateak duen garrantzia adierazi izan dugu. Udaletxeko langileak euskalduntzeko prozesua aurrera doan heinean, urtean zehar euskararen normalizazioaren bidean Arrasaten eman diren urrats garrantzitsuak kontuan izanda, eta herritarrok guk geuk euskaraz hitz egin ahal izateko dugun eskubideaz jabeturik, behar beharrezkotzat jotzen dugu aterako den Udal Gorporazio berriaren kide guztiak euskaraz ere hitz egiteko gai izatea.

Gure eritziz, oso bestelakoak dira, herritar arrunt batek bere kideekiko dituen obligazioak eta kargu publiko batek herritarrekiko izan ditzakeenak. Inork gutxik ukatzen du gaur egun, herritarrok euskaraz iharduteko dugun eskubidea. Euskaraz komunikatzeko, ordea, gure solaskideak euskaraz jakin behar du eta Udaletxera joan eta langileek ez ezik zinegotziek ere euskara menperatu behar dutela uste dugu, herritarrek eurekin beraien hizkuntzan hitz egiteko aukera izan dezaten.

Ezin ahaztuko dugu hemen, gaur egun Udal Gorporazioan ordezkaritza duten bost alderdi politikoetatik lauk euskararen erabilera areagotzeko Hitzarmena sinatua dutela eta, Hitzarmen horren bidez euren borondate ona adierazteaz gain, pausuz pausu baina etengabe, euskaraz iharduteko konpromezua hartuko zutela ez dugu zalantzan jartzen.

Dagoeneko alderdi politiko ezberdinei luzatu diegu gure proposamena eta euren aldeko jarrera ere jaso dugu. Gutun honen bidez ordea, herritarrek botua ematen dieten alderdi ezberdinei aurkeztuko dituzten zerrendatan, aukeratuak izateko posibilitatea duten hautagaiek euskaraz ere jakitea eska diezaietela du helburutzat, Arrasate euskalduntzea denon zeregina da eta.

*(*) AEDko Zuzendaritza Batzordeko kidea*

BURGALES JATETXEA
Jaki goxoak eta giro atsegina
Durana 12, ARETXABALETA

Osorik pub
Ignazio Zuloaga kalea Arrasate



Udalaren jabetzakoak 168 hektareak dira

# Kurutze Berri Onura Publikoko lur

## *Udalaren jabetzako 168 hektarea Diputazioaren esku*

Gipuzkoako Diputazioak Onura Publikoko Mendien Katalogoan onartu berri ditu Aretxabaletako Udalaren jabetzakoak diren Kurutze Berriko lur sailak. Guztira Urkuluko arroako 168 hektarea baso dira joan den urteko uztailean Aretxabaletako Udalak hartutako akordioaren ondorioz Diputazioaren ardurapera pasako direnak, nahiz eta jabetzaz Aretxabaletako Udalarenak izaten jarraitu. Proposamena Diputaziora luzatu aurretik, perito agronomo batek txostena egin zuen, baso horien aukerak ikusteko. Erabaki hori hartzeko orduan, basoen mantenuak dakartzan gastuak izan dira kontuan, Udaleko Nekazaritza Batzordeko zinegotziak, Jesus Kortabarriak aditzera eman duenez, baita gai horien inguruan Udalek normalki izan ohi duten interesik ezari irtenbide emateko .

Aurrerantzean baso horietan egingo diren landaketa lanak egiteko, programa bereziak landuko dira Udala eta Diputazioaren artean. Kortabarriaren eritziz argi dago Udalak eredu izan behar duela frondosak landatzeko orduan, eta lur bakoitzaren ezaugarrien arabera, era horretako zuhaitzak landatuko dira. Gastu guztiak Diputazioaren gain izango diren arren, noizbait baso horietatik irabazirik etortzera, %15 Diputaziarentzat izango da, berriz ere bertan inbertitzeko, eta gainerakoa Udalarentzat. Esan bezala, jabetzak Udalaren esku egoten segituko du, gestio guztiak Diputazioak egin arren eta ezin izango da inorenganatu, horretarako Eusko Jaurlaritzaren onarpena beharko duelarik. Edozein erabaki garrantzitsu hartzeko Udalaren adostasuna beharko da.

Gaur egun baso horietan 360.000 m$^2$ inguru dira konifa, beste 17 artea, denetariko landarez osatua 114.000 m$^2$, 211 mila harkaitza eta beste 95 hektarea zer barik.

## Usteak uste

Azken hamarkadan jubilatuen kopurua ikaragarri igo da. Horri erantzun nahian, lau etxe egokitu dira jubilatuentzat.

Etxe hauek, ordea, zaharrak aparkatzeko garaje bihur daitezke, egun hauetan gertatzen denari ez bazaio erremedioa ipintzen. ATBk jubilatuei buruz egin zuen mahaingurauan garbi asko adierazi zuten gonbidatuek geroz eta jubilatu gehiago egon arren, jubilatuen etxeetan ibiltzen diren erretiratuen adina gora doala, euren arteko gazteenak, jubilatu berriak, agertzen ez direlako.

Zergatik ez dira, baina, agertzen? Seguruenik arrazoi bat baino gehiago egongo da, baina han eskaintzen zaiena ez zaielako erakargarri esango nuke dela inportanteenetarikoa. Izan ere, zer eskaintzen diete Mondragoeko jubilatuen etxeek beste edozein tabernak ematen ez dienik? Horretara eta folkloriko samar izan daitezkeen beste hainbat ekintzatara mugatu behar da jubilatuen egoitzen eskaintza? Ez dut uste.

Gordetzeko lakua behar duten erlikiak baino zerbait gehiago izan nahi badute, jubilatu guztiek, gazteago eta zaharragoak direnek, euren eskuetan hartu beharko dute eurena eta euren egoitzen etorkizuna, azken hauek ekimen erakargarri eta interesgarriren gune bihurtzeko. Nork esan zuen erretiroa potrojorran egoteko zela?

*Joxe Aranzabal*

LA UNION
Garaje elektro-mekanikoa
Agentzia ofiziala
*Tailerra: Zaldispe 2,*
*Erakusketa: Sancho Abarka 6,*
ARRASATE Tfnoa: 79 97 12

LEKIN
Ileapaindegi mistoa
Erguin 15, etxebehea.
Tfnoa: 79 80 23 ARRASATE




Hauek dira astebetez gose greban dauden arrasatearrak

# Lau arrasatear gose greban

## *Arrasateko Lurraldeak manifestaldirako deialdia egin*

Joan den larunbatetik gose greban dauden lau arrasatearrak bihar emango diote bukaera aste betez, autobidearen arazoari elkarrizketa bidezko irtenbidea eskatzeko, egin duten greba honi. Entzerraturik eta gose greban dauden lau gazteak, porrot handitzat jo zuten joan den larunbatean Donostian burutu zen manifestaldia. Era berean, aipatutako manifestaldiari begira komunikabideek izan duten jarrera salatu zuten, esanez gustatuko litzaiekela asteburu honetako manifestaldiari komunikabideek kasu berdina egitea.

Lau gazte arrasatearrak, Euskal Herrian dauden gutxi gorabehera beste ehun pertsonen bezala, Udaletxean egiten ari diren gose grebari bukaera eman eta gero Donostiara joango dira, han burutuko den manifestaldian parte hartzeko.

Arrasateko Lurraldea asanbladak manifestaldira joateko autobusak jarri ditu, eta herritar guztiei dei egin nahi die bihar arratsaldean Donostiako manifestaldira joan daitezen.

### ❑ AEDren batzarra

AED elkartearen batzar orokorra martxoak 8 ostiralez izango da, arratsaldeko 7etan Monterronen. Aztertuko direnen artean, diru kontuak, urteko ekintzen balorazio orokorra eta zuzendaritza batzordeko hainbat kideren hautaketa. Bazkideei data hori oraingoz kontuan hartzea eskatzen zaie.

### ❑ UCEM

UCEM elkargoak FAMA enpresa sortu du, fundizio arlorako ar edo matxoak sortzeko. Lantegi berriaren hasiera martxoaren 15erako dago pentsatua. Lantegi berria UCEMekoaren barruan kokatuko da, eta teknologia alemaniar eta euskaldunaz osatuko da, guztira 180 milioiko inbertsioaz.

### ❑ Kultur taldeak

Kultur elkateei jakin arazten zaie aurtengo ekitaldirako dirulaguntzak eskatzeko epea martxoaren 15era arte dagoela zabalik. Eskabidearekin batera honako dokumentazioa aurkeztu behar izango da: 1990ean izandako gastu eta sarreren balantzea, 1991rako iharduera egitaraua eta 1991rako gastu eta sarreren aurrekontua.

### *JAIOTZAK*

Elorza Mellado, ***Jon Ander***, otsailaren 9an.
Arriaran Lopez, ***Andoni***, 14an.
Isturiz Redondo, ***Nayade***, 16an.
Revuelta Garcia, ***Omar***, 16an.
Iñarra Rojas, ***Julen***, 16an.

VICTOR RUIZ MELGAR
Pintorea
Erdiko kale 32, 4.
79 12 63 (9etatik 1etara eta 4etatik 8etara)
ARRASATE

IBARRA Garajea S.A.
EBRO
NISSAN
*Garajea*
*Automobil-konponketa*
*Garabi zerbitzua*

LURRINDEGIA
ERTZ
OPARIETAKO ARTIKULOAK
Ferrerias 28, B. Tfnoa: 79 08 70 Arrasate

Monte taberna
Maalako errabala 11, Tfnoa: 79 20 56



Udalaren jabetzakoak 168 hektareak dira

# Kurutze Berri Onura Publikoko lur

## *Udalaren jabetzako 168 hektarea Diputazioaren esku*

Gipuzkoako Diputazioak Onura Publikoko Mendien Katalogoan onartu berri ditu Aretxabaletako Udalaren jabetzakoak diren Kurutze Berriko lur sailak. Guztira Urkuluko arroako 168 hektarea baso dira joan den urteko uztailean Aretxabaletako Udalak hartutako akordioaren ondorioz Diputazioaren ardurapera pasako direnak, nahiz eta jabetzaz Aretxabaletako Udalarenak izaten jarraitu. Proposamena Diputaziora luzatu aurretik, perito agronomo batek txostena egin zuen, baso horien aukerak ikusteko. Erabaki hori hartzeko orduan, basoen mantenuak dakartzan gastuak izan dira kontuan, Udaleko Nekazaritza Batzordeko zinegotziak, Jesus Kortabarriak aditzera eman duenez, baita gai horien inguruan Udalek normalki izan ohi duten interesik ezari irtenbide emateko .

Aurrerantzean baso horietan egingo diren landaketa lanak egiteko, programa bereziak landuko dira Udala eta Diputazioaren artean. Kortabarriaren eritziz argi dago Udalak eredu izan behar duela frondosak landatzeko orduan, eta lur bakoitzaren ezaugarrien arabera, era horretako zuhaitzak landatuko dira. Gastu guztiak Diputazioaren gain izango diren arren, noizbait baso horietatik irabazirik etortzera, %15 Diputaziarentzat izango da, berriz ere bertan inbertitzeko, eta gainerakoa Udalarentzat. Esan bezala, jabetzak Udalaren esku egoten segituko du, gestio guztiak Diputazioak egin arren eta ezin izango da inorenganatu, horretarako Eusko Jaurlaritzaren onarpena beharko duelarik. Edozein erabaki garrantzitsu hartzeko Udalaren adostasuna beharko da.

Gaur egun baso horietan 360.000 $m^2$ inguru dira konifa, beste 17 artea, denetariko landarez osatua 114.000 $m^2$, 211 mila harkaitza eta beste 95 hektarea zer barik.

## Usteak uste

Azken hamarkadan jubilatuen kopurua ikaragarri igo da. Horri erantzun nahian, lau etxe egokitu dira jubilatuentzat.

Etxe hauek, ordea, zaharrak aparkatzeko garaje bihur daitezke, egun hauetan gertatzen denari ez bazaio erremedioa ipintzen. ATBk jubilatuei buruz egin zuen mahainguruan garbi asko adierazi zuten gonbidatuek geroz eta jubilatu gehiago egon arren, jubilatuen etxeetan ibiltzen diren erretiratuen adina gora doala, euren arteko gazteenak, jubilatu berriak, agertzen ez direlako.

Zergatik ez dira, baina, agertzen? Seguruenik arrazoi bat baino gehiago egongo da, baina han eskaintzen zaiena ez zaielako erakargarri esango nuke dela inportanteenetarikoa. Izan ere, zer eskaintzen diete Mondragoeko jubilatuen etxeek beste edozein tabernak ematen ez dienik? Horretara eta folkloriko samar izan daitezkeen beste hainbat ekintzatara mugatu behar da jubilatuen egoitzen eskaintza? Ez dut uste.

Gordetzeko lakua behar duten erlikiak baino zerbait gehiago izan nahi badute, jubilatu guztiek, gazteago eta zaharragoak direnek, euren eskuetan hartu beharko dute eurena eta euren egoitzen etorkizuna, azken hauek ekimen erakargarri eta interesgarriren gune bihurtzeko. Nork esan zuen erretiroa potrojorran egoteko zela?

*Joxe Aranzabal*

LA UNION
Garaje elektro-mekanikoa
Agentzia ofiziala
*Tailerra: Zaldispe 2,*
*Erakusketa: Sancho Abarka 6,*
ARRASATE Tfnoa: 79 97 12

LEKIN
Ileapaindegi mistoa
Erguin 15, etxebehea.
Tfnoa: 79 80 23 ARRASATE




Hauek dira astebetez gose greban dauden arrasatearrak

# Lau arrasatear gose greban

## *Arrasateko Lurraldeak manifestaldirako deialdia egin*

Joan den larunbatetik gose greban dauden lau arrasatearrak bihar emango diote bukaera aste betez, autobidearen arazoari elkarrizketa bidezko irtenbidea eskatzeko, egin duten greba honi. Entzerraturik eta gose greban dauden lau gazteak, porrot handitzat jo zuten joan den larunbatean Donostian burutu zen manifestaldia. Era berean, aipatutako manifestaldiari begira komunikabideek izan duten jarrera salatu zuten, esanez gustatuko litzaiekela asteburu honetako manifestaldiari komunikabideek kasu berdina egitea.

Lau gazte arrasatearrak, Euskal Herrian dauden gutxi gorabehera beste ehun pertsonen bezala, Udaletxean egiten ari diren gose grebari bukaera eman eta gero Donostiara joango dira, han burutuko den manifestaldian parte hartzeko.

Arrasateko Lurraldea asanbladak manifestaldira joateko autobusak jarri ditu, eta herritar guztiei dei egin nahi die bihar arratsaldean Donostiako manifestaldira joan daitezen.

### ❑ AEDren batzarra

AED elkartearen batzar orokorra martxoak 8 ostiralez izango da, arratsaldeko 7etan Monterronen. Aztertuko direnen artean, diru kontuak, urteko ekintzen balorazio orokorra eta zuzendaritza batzordeko hainbat kideren hautaketa. Bazkideei data hori oraingoz kontuan hartzea eskatzen zaie.

### ❑ UCEM

UCEM elkargoak FAMA enpresa sortu du, fundizio arlorako ar edo matxoak sortzeko. Lantegi berriaren hasiera martxoaren 15erako dago pentsatua. Lantegi berria UCEMekoaren barruan kokatuko da, eta teknologia alemaniar eta euskaldunaz osatuko da, guztira 180 milioiko inbertsioaz.

### ❑ Kultur taldeak

Kultur elkateei jakin arazten zaie aurtengo ekitaldirako dirulaguntzak eskatzeko epea martxoaren 15era arte dagoela zabalik. Eskabidearekin batera honako dokumentazioa aurkeztu behar izango da: 1990ean izandako gastu eta sarreren balantzea, 1991rako iharduera egitaraua eta 1991rako gastu eta sarreren aurrekontua.

### *JAIOTZAK*

Elorza Mellado, ***Jon Ander***, otsailaren 9an.
Arriaran Lopez, ***Andoni***, 14an.
Isturiz Redondo, ***Nayade***, 16an.
Revuelta Garcia, ***Omar***, 16an.
Iñarra Rojas, ***Julen***, 16an.

VICTOR RUIZ MELGAR
Pintorea
Erdiko kale 32, 4.
79 12 63 (9etatik 1etara eta 4etatik 8etara)
ARRASATE

IBARRA Garajea S.A.

EBRO
NISSAN
*Garajea*
*Automobil-konponketa*
*Garabi zerbitzua*

LURRINDEGIA
ERTZ
OPARIETAKO ARTIKULOAK
Ferrerias 28, B. Tfnoa: 79 08 70 Arrasate

Monte taberna
Maalako errabala 11, Tfnoa: 79 20 56



San Andres eskolan gehienengoak euskaraz ikasten du

# S. Andres Eskolan euskararen astea

## *Martxoaren 11tik 15era ikasleen motibagarri*

San Andres Herri Eskolak euskararen astea antolatu du martxoaren 11tik 15erako. Aurtengoarekin seigarren urtea izango da eta Zuzendaritzatik aditzera eman digutenez, San Andres Eskolan ere euskara eta euskaraz irakasten dela erakustea da aste horren helburua. Urtean zeharreko beste ekintzekiko lotura festagiroan egin nahi dute martxoko aste horri, ikasleentzat ere motibagarri izan dadin.

Antolatutako ekintzen artean, Errealeko hainbat jokalarirekin egingo den solasaldia, urtean zehar eskolan bertan prestatutako hainbat antzerki eta kanpotik ekarritakoak eta Pello Añorga ipuin kontalariaren saioa aipagarri. Horrezaz gain, zenbait txapelketa antolatuko dira OHOko ikasleek eurek parte har dezaten: bertsolaritza eskolan landu dutenez, txapelketa egingo da eta baita txisteena ere.

Euskararen astea antolatzeko San Andres Eskolak prestatua duen aurrekontua 300.000 ptakoa da, eta diru iturri bezala auzoko dendak erabiltzeko asmoa dago, aurreko urteetan bezala eta baita Eroskiren komite lokala ere.

## *Zain dezagun Urkulu*

Zain Dezagun Urkulu batzordeak manifestaldia burutu zuen *Utzi Urkulu Bakean* lemapean joan den asteburuan. Goizeko 11etan AZBEtik irtenda, 200 lagun inguru abiatu ziren Urkulura oinez, eta urtegian komunikatua irakurri ondoren, eguerdiko 1ean egin zuten buelta. Antolatzaileek oso balorazio positiboa egin dute jendeak emandako erantzunaz, eta aurrerantzean ere mobilizazioekin segitzeko asmoa adierazi.

Gogora dezagun Lan Kide Aurrezkiak Otalako jauregiaren ondoan egin nahi duen etxe berriaren aurka azaldu dela batzordea, Urkuluko urtegiaren inguruan egin nahi izan diren beste hainbat ekintzaren aurka dagoen bezala. Horrela, baimenik ez ematea eskatzen diote Udala eta Diputazioari, eta lur horietan ezer egiten hasi aurretik plan integrala burutzea. Era berean, bere mezu ekologikoa praktikara eramatea eskatzen diote Kaja Laboralari.



GOROSTI
Jatetxea
Arimazuri plaza Tfnoa: 77 06 07 ARRASATE

Hilbera kafetegia
Uribarri Etorbidea
ARRASATE

EPELDE
argazki denda
Iturriotz 24

### ❑ Zuhaitz eguna

Datorren larunbatean, otsailak 23, Zuhaitz eguna egingo da Arrasaten, Garagartzako rugby zelaiaren ondoko haztegian. Pagoak, haritzak, urkiak, ezkiak eta lizarrak landatuko dira. Irteera goizeko 9.30etan izango da, Herriko Plazatik, eta ikastetxe guztietako OHOko ikasleei luzatzen zaie plazan agertzeko gonbidapena, eta baita guraso eta irakasleei ere. Garagartzako zelaira joaten diren neska mutiko guztiei otartekoak eta edariak banatuko zaizkie. Dultzainero eta txistulariak ere Garagartzan izango dira, bertara joaten diren guztiengan dantza gogoa pizteko asmoz.

### ❑ HB

Herri Batasunak datozen hauteskundeetarako programa zehazteari ekin dio, eta asmo hori gauzatzeko herritar guztien partaidetza nahi duenez, herriko elkarte eta erakunde ugarirekin harremanak izateaz gain, herritarren iradokizunak jaso nahi ditu. Horretarako 30 buzoi jarri dira herriko hainbat puntutan.

### ❑ Drogomenpekotasunaren aurkako bulegoaren oharra

Normalean Arrasate Pasealekuko lehen zenbakian goizez 9etatik 1era zabalik egoten den Drogomenpekotasunaren Aurkako Bulegoa, datorren astelehenetik ostiralera bitartean arratsaldez egongo da zabalik, 3etatik 5ak bitartean.



Garagartzakoa eta Epelekoa egin nahi dira Akeiko erretegia.: gain

# Hondakinen Biltegi Alternatiboa

## *Apirilean hasiko da lanean Garagartzan*

Apirilean irekiko da Garagartzan hondakinak bilduko dituen biltegi alternatiboa. Hasierako asmoa hil honetan bertan irekitzea bazen ere, atzerapena izan da derrigorrez egin beharreko lan batzuk medio, eta egunotan prestaketak bukatu ondoren, martoxan zehar probaldiari ekingo zaio, gerora lanean erabiliko diren kamioi garabiduna eta zortzi edukiontzirekin.

Biltegiak zortzi edukinontzi izango ditu, zaborrak eta hondakinak selektiboki jarri beharko direlarik horietan banatuta, eta orain arte Takolon pilatzen zirenak ikusi ondoren, kartoia, egurra, pilak, plastikoa, txatarra eta antzekoentzako lekua egitea erabaki du Mankomunitateak, hura izango bait da DAR deituaren gestioaz arduratuko dena, eraikuntzako gastuak Udalaren gai joango dira.

Biltegi horren kostua zenbaterainokoa izango den oraindik ez dago argi, eta asteazken honetan zehazteko ziren, bestalde, kontrola eramango duen langilea kontratatzeko baldintzak.

BASABE JATETXEA
Menu eta afariak
Boda eta banketeak
ARETXABALETA

ECUADOR
Kontzezino 2,
Tfnoa: 79 14 06
ARRASATE

URONDO elektrizitatea
* Elektrogaiak
* Instalazioak
* Automatismoak
* Argiztapena
* Bobinaketak
* Proiektuak
Nafarroa etorbidea 11, Tfnoa: 79 78 15 ARRASATE

SAMEGO GARBIKETAK
Uriburu 24,
Tfnoa: 79 70 39
ARRASATE




Argazkia: Jabier Ozaeta

Iragandako urteen pisuak
bizkarra okerturik jada,
nekez ibiltzen laguntzen didan
egur puska honen tinkotasunaz,
honakoa diotsuet, gazteok:
iruzur guztien azpian badela
egiantza duen zertxobait
(baita publizitatean ere);
ditxosozko bizipoza
("sensación de vivir" delakoa, alegia)
ezinbestekoa dela gero, zahartzean,
bizi izanaren poza sentitu ahal izateko.
(A, eta patata tortila sorgin edari
horrekin jatea zikinkeria hutsa dela).

*Gerardo Markuleta*

**ANALISI KLINIKOAK, LABORATEGIA**

*I. Laborra Erdozain*

(Lagun Aro, Diputazioa, Previasa, Asisa, Capisa)
**GINEKOLOGI KONTSULTA**

Zerkaosteta 17, etxabehea, Tfnoa: 79 20 18
ARRASATE

**IRATI**

**Ferrerias kalea**
**Tfnoa: 79 71 80**



Joan den astean **"Xixa" Gardner** eta **Roderick Maclean** izan ziren Arrasate Press eta ATB bisitatzen. Xixak, Arrasaten bi urtez bizi izan zenak, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailean egiten du lan, EGA eta Iralez arduratuz eta oraingoan itzultzaile lanak egiten ari zen Maclean jaunarentzat. Roderick Maclean eskoziarra da eta astebetez Euskal Herria bisitatzen ari da. Euskara, irlandesa eta gaelikoaren irakaskuntza eta egoera alderatu nahi ditu. Eskozian 80.000 pertsonak hitz egiten du gaelikoa, hau da, populazioaren %1,6a. Inpresionatuta joan zen hemen euskarari ematen zaion tratamenduarekin.

# TAPIA eta LETURIA
# RIP
# MINXORIAK

eta beraiekin kantuan:

- **Gari** (Hertzainak)
- **Roberto Moso** (Zarama)
- **Andoni** (Delirium Tremens)
- **Elortza** (Jotakie)
- **Anje Duhalde**
- **Josu Garaita** (Danba)
- **Gorka** (Julio Kageta)
- **Patxi** (SS-77)

Arrasateko Kiroldegian
Martxoaren 22an, ostirala, gaueko 10etan

Sarrerak: Aurrez 500 pta. lehiatilan 600 pta. Salgai ohizko lekuetan.

**ARRASATE PRESS EGUNETIK EHUNERA**

**Arrasate Pressek 100. zenbakia** aterako du laster. Martxoaren 22an ikusi ahal izango duzue kalean, eta egun horretarako ospakizun berezi bezala, jaialdi erraldoi mundiala antolatzen ari gara. **Tapia eta Leturia, RIP** eta **Minxoriak** ekarriko ditugu Arrasateko Kiroldegira. Iparraldeko taldeak, ohi duenez, beste talde askoren kantak eskainiko dizkigu, baina ez beti bezala, ez horixe. Kanta horiek abesteko, talde bakoitzeko kantaria izango da tabladuaren gainean: **Anje Duhalde**, **Gari** *Hertzainak*-ekoa, **Roberto Moso** *Zarama*koa, **Andoni** *Delirium Tremense*koa, **Katu** *Baldin Bada*koa, **Elortza** *Jotakie*koa, **Josu Garaita** *Danba*koa, **Gorka** *Julio Kageta*koa, **Patxi** *SS-77*koa eta beste hainbat sorpresa. Apuntatu izen hori agendan!



◀ Joan den asteazkenean, **Txomin Artola** kantaria San Viator ikastetxean izan zen, bertan kitarraz lagundurik bere betiko kantuak abestu zituelarik. Orain urte batzuk baino lodiagoa agertu bazen ere, kanturako trebetasunik ez du galdu, eta San Viatorreko mutil eta neskak oso gustora egon ziren Txominen ekitaldia entzuten.


ALE S.A.

Notario Etxagibel (Musakola Auzoa)
Tfnoak: 79 58 11 / 79 59 76

**Gauzak gordetzeko kutxa metalikoak**
**Otzaratzarrak**
**Giltzak gordetzeko armairuak**
**Erremintak eramateko gurdiak**
**Erremintak gordetzeko armairuak**
**Lan egiteko aulkiak**

**LORATEGI**
**taberna**
Iturriotz 7, Tfnoa: 79 04 67

**ELEKTRONIKA ARTIKULUEN SALMENTA**

BAZAR TOKI ON

**J. Carlos Guerra 1, Tfnoa: 79 91 64**



**77 08 15**



Tabernetan ibili zale zaretenok ohartuko zineten **Sergio** ez dela kalean izan azken hilabete honetan. Izan ere, 20 egun inguru egin ditu Eskualde Ospitalean pulmoniak jota, eta asteartean berriz ere kalean ikusi ahal izan genuen. Udaletxeko gizarte laguntzaileari ikustaldia egitera joan zen, eta une batez berarekin solasean egon ginen, atsegin handiz gainera. Pozik zirudien Sergiok berriz ere bere Arrasate maiteko kaleetan izateaz, eta sarriago bisita egingo ziola agindu zuen Udaletxean ...

198 - ARRASATE O MONDRAGON

JAUREGUI LOITI, V. - Muebles - Ignacio Zuloaga, 6 ........ 79 0573
» SARACIBAR, S. - Munar, 10 ........ 79 4867
» URRIATEGUI, M. C. - Uribe Auzategia, 4 ........ 79 7569
» ZAITEGUI, J. A. - Olaran, 24 ........ 79 9426
» ZUBIZARRETA, F. S. - Ferrerias, 56 ........ 79 2566
JAUREGUIALZO ARRIZABALAGA, I.
Gipuzkoa Etorbidea, 46 ........ 77 0118
» ARRIZABALAGA, J. - Zarugalde, 23 ........ 79 8017
» ARRIZABALAGA, J. M. - Errebuelta, 2 ........ 79 3080
» ZABALA, I. - Kalealdea, 7 ........ 77 0760
JAUREGUIARRABURU LEIBAR, A.
Kanpatorpea, 2 ........ 77 0493
JAUREGUIBARRIA ECHEVARRIA, N.
Gipuzkoa Etorbidea, 44 ........ 79 1821
JAUSORO AGUIRRE, J. M. - Makatzena, 2 ........ 79 4458
» AGUIRRE, M. T. - Santamaina, 24 ........ 79 5444
» APERRIBAY, R. - Loramendi, 3 ........ 79 2617
» GALDOS, J. - Jauregibarria, 2 ........ 79 3875
» GALDOS, M. - Elkano, 9 ........ 79 7868
JIMENEZ BLAZQUEZ, F. - Dr. C. y Oro Plaza, 2 ........ 77 1138
» BLAZQUEZ, J. - Larragain, 10 ........ 79 7695
» BORTHAYRE, J. M. - Ferrerias, 42 ........ 79 5902
» BREA, M. - Ing. Ind.
J. L. Iñarra Abade Jauna P., 22 ........ 79 3703
» BRIONES, A. - Maisu Aranbarri Plaza, 5 ........ 79 2509
» DIAZ, J. - Agerre, 7 ........ 79 8312
» FERNANDEZ, J. - Dr. C. y Oro Plaza, 6 ........ 77 1355
» FERNANDEZ, P. L. - Comest

KILIKOLO
– Modas y Novedades
– Ferrerias, 21
KIMU OPARIDENDA - Zarugalde, 2

L

LA BERMEANA
– Pescados
– Mondragones, s/n
LAB - Garibai Etorbidea, 14
LABAYEN JAUREGUI, J. M. - Bizkai Eto
LABORATORIOS AYALA HNOS.
- Zerkaosteta, H
LABRADOR CABALLO, A. - Uriburu, 9
LACALLE PURAS, E. - Zarugalde, 48
LACUNZA ANTON, I. - Olaran, 20
» ANTON, J. A. - Uriburu, 21
LAFUENTE OCHOA, M. - Santamaina, 2
» ORTEGA, C. - Bizkai Etorbidea, 10
» ORTEGA, C. - Elkano, 14
LAGE ALVAREZ, J. A. - Obenerreka, 2

◄ Telefonicak Gipuzkoarako atera berri dituen listinetan berrikuntzak ageri dira. Lehen, **"M"** letran begiratu behar genuen gure herriko zenbakiren bat bilatu nahi izanez gero, eta orain berriz **Arrasate** ipini dute. Ez, hala ere, huts-hutsean, Arrasate o Mondragon ipini bait dute orrialdearen goikaldean.

Norbaiti zalantzarik sortuta ere...

## Izen PROPIOAK

● **Alvaro Esparza**, 38, mondragoetarra EEren Biltzar Ttipiko Kide izendatu dute. Udaletxean lan egiten du, hirigintza saileko administrazioan. ELA sindikatuko liberatua ian zen, sektore publikoan. Bergaran bizi da, ezkonduta.

● **Nati Abasolo**, 37, atxabaltarra, Udal Euskaltegiko zuzendari izendatu dute beste hiru urtetarako. Nati 82an hasi zen Arrasateko Udal Euskaltegian, eta zuzendari izan da azken 6 urteotan. Eskoriatzan Magisteritza egin ondoren, Fagor Elektronikan eta Ularkon ibili zen lanean, eta baita urtebetez Ahizke-Cimen ere.

● **Jabier Sanchez, Jose Feo, Jabier Ozaeta** eta **Raquel Coronado** izan dira ASA taldeak Ihauterietan antolaturiko argazki lehiaketako sarituak. Argazki multzorik onena, argazkirik onena, 2. multzorik onena eta 2. argazkirik onenaren sariak jaso dituzte, hurrenez hurren.

COMERCIAL TERRESTRE MARITIMA
TRANSPORTES
ARANBURU COTEMAR
Garraio agentzia
ATA
Zaldizpe 3, Tfnoak: 78 52 34 / 79 53 99 ARRASATE



ETXE-
-AUNDI
Ostiraletan dastatu gure menu bereziak
3.500 pta. inguru
Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
OÑATI

Onduline
URALITA
TXOMIN HERIZ
eraikuntzarako materialak
Biltegia: Bidekruzeta 1, Tfnoa: 79 23 18

# Baserrian hasi, harategian bukatu

**_Garaiak asko aldatu dira, lehen herriko harakinak abereak akatu eta berak saltzen zituen. Orain, legearen aginduz, hori ikusteko Zubillagara joan behar da._**

*Txahala naiz, hala jaio nintzen eta hala hilko naiz. Uste baino bizkorrago gainera, atzo nagusia eta harakinaren arteko tratua entzun nuen eta. Dirudienez, gaur bertan etxeko txahal guztiak Zubillagako hiltegira eramango gaituzte. Ihes egingo nuke, baina gure patua aldaezina da.*

Kamioi txiki batean sartu gaituzte. Nagusiari, lehen erosoagoa zela esaten entzun diot, abereak hiltzeko herritik mugitu beharrik ez zegoela eta, baina behin ohituz gero, Zubillagarako bidea egitea ez dela bat ere nekeza egiten. Zubillaga famatu hori zer den? Atzo arte, sekula entzun barik nengoen, baina denbora labur honetan adi egon naiz eta zerbaiteaz jabetu.

### Txandaren zai

Zubillagako hiltegia, Deba Garaiko Mankomunitateak abereak hiltzeko duen tokia omen da, bailaratik kanpo ekartzen dituzten abereak hiltzeko arazorik ez badago ere. Zubillagan edozein abere hiltzeko, goizeko hamarrak baino lehen bertara iritsi beharra dago. Etxean albaitariak begiratu gintuen; hala ere, hona iritsi bezain pronto berriro behatzen gaitu Berandu samar etorri garenez, gure nagusiari azken zenbakia eman diote, eta hortaz geure baserrikoak izango gara gaur akatuko dituzten azkenak.



Sabaieko kakuetatik zintzilik, abereak hozkailurantz doaz.

Txandaren zain gauden bitartean, ingurua ikusteko aukera daukat. Gu ekarri gaituen kamioiaz gain, badira beste antzerako batzuk. Gaurkoan, txahalak eta behorrak besterik ez dira ikusten. Entzuten dudanez, beste batzuetan txerri eta ardiak ere ekartzen omen dituzte.

Goiza aurrera doa, eta badirudi gure txanda iritsi dela. Zain egon garen bitartean, hiltegi aurrea hustutzen joan da, baserritarrak euren artean berbaldiak egin dituzte, kamioiak urez garbitu, eta harakinen bat edo beste ere inguruan ikusi da, merkantziari begira seguruenik.

Kamioiko atea zabaldu dute. Badaezpada, kamioiaren atzekaldera joan naiz, baina alferrik. Nagusia akuiluaz sartu da, eta atera arazi egin gaitu. Bata bestearen atzetik, eta era berean bata bestearen gainean goaz. Alboetan, aurrera joatera behartzen gaituen burdinezko hesiak daude, bide estu eta bihurgunez betea. Bapatean geldirik gaude, ezin dugu egin ez atzera eta ez aurrera. Atetxo bat ireki eta gutariko bat bertatik sar erazten dute. Gainontzekoak bide beretik doaz, ni neu azkena naizelarik. Bi hormen artean naukate preso, gainean gizonezko bat eskuetan zerbait duelarik. Badakit nire azken ordua iritsi dela.

### Hozkailurako bidean

Gizonak pistolatxoa eskuetan hartu du, bala txiki bat sartu dio eta abearen buruan jarri. Gatua sakatu eta aberea blaust eror-



Hesien artetik abereak hiltegira banan-banan sartzen dituzte .

**Orduro, bataz beste, 20 abere hiltzen dira Zubillagan.**

tzen da, dagoeneko hila da, segundu bakar baten.

Gaurko azkena izan da, goizeko 7etan ekin dio lanari beste zazpi ganadu-hiltzailerekin batera, eta 2.30ak gertu direnez, hauxe izan da gaurko azkena. Orduero, bataz beste, Zubillagako matarifeek 20 abere hiltzen dituzte. Iaz, hau da, 1990ean, hiltegitik 2 milioi kilo haragi atera ziren. Horietatik, milioia eta zazpiehun mila abelgorriei zegokien, gainerako hirurehun mila kiloak ardiki, txerriki, eta zaldikiei.

Txahalaren gorpua lurrera erori orduko gaku batez altxatu dute. Gakoak, txahalarekin batera hozkailura arteko bidea egingo du, sabaian dagoen burni-bideak, eramango duelarik. Gakoak burni-bidean aurkitzen duen lehen geratokian, txahalaren gorpua odolustutzen da, gerokoan larrua kenduko zaio, eta ondorengoetan matarifeek barruko tripa eta hesteak aterako dizkiote, erdibitu, gibela eta burua alde batera atera, azkenean hozkailu handietan geldituko delarik. Tartean, albaitaria hara eta hona ibili da, itxura txarreko haragi zatiren baten bila. Aurkitu ezean, kanalean erdibitutako gorpuari zigilua jarriko zaio, era horretan alde batetik jateko modukoa dela adieraziz, eta bestetik harakinari aurrez berak aukeratutako haragia huraxe dela ziurtatuz.

### Saltzeko prest

Beste hainbat gorpu bezala, txahalaren gorpua hozkailuan zintzilik gelditzen da. Asko jota egun batez edukiko da bertan, gutxi gorabehera lau graduko hozberotan, eta hurrengo egunean eramango du jendeak, nahi izanez gero, eros dezan.

Lanetik ateratzeko ordua ia iritsi da, berarekin hiltegia garbitzeko ordua dakarrelarik. Izan ere, honelako toki batean derrigorrezkoa da garbitasuna, eta horretan saia-tzen dira behintzat. Laneguna bukatu da, eskuak garbitu eta bihar arte, bihar ere goizean goiz iritsiko bait dira lehen kamioiak.

## Haragiaren kalitateaz, eta...

"Hiltegietan erabiltzen diren teknika modernoenak ditugu. Ondorioz, Deba Garaian bizi garenok lasai egon gaitezke jaten dugun haragiaren kalitateari dagokionez -dio Zubillagan Mankomunitateak duen hiltegian lana egiten duen albaitariak-. Kalitate oneko ganadua dabil inguruan, eta hemengo prozesuan ez du kalitate hori galtzen. Kontsumitzailearen onerako ari gara lanean.

Garbitasunari garrantzi handia ematen diogu eta alde horretatik ur-depuradoraren instalaszioa aipatuko nuke. Aspalditik daukagu, eta bere lana hemengo odol eta zikin likidoen garbitasuna lortzea litzateke. Errekara bidaltzen dugun ura garbi-garbia ateratzen da".

LASA-AGUILERA
aholkularitza

- Lan-kontratuak
- Nominak
- Gizarte-aseguruak
- Babes juridiko-soziala
- Elbarritasuna
- Erretiroa
- B.E.Z.
- Errenta aitorpenak
- Dirulaguntza ofizialak
- Aseguru orokorrak

Andra Mari auzunea 3, Tfnoa: 79 29 26 ARETXABALETA

**CAJA LABORAL ⓟ EUSKADIKO KUTXA**



# Euskeraren Geroa, Geurea

Gure hizkuntzaren geroa sendotu behar dugu. Guraso eta belaunaldi gazteen arteko zubiak eraikiz kultura indartuz, urrats berriak emanez, gure nortasuna aldarrikatuz. Euskera geurea da, Euskal Herri osoarena, bere normalkuntza eta berreskurapena guztion ardura den bezalaxe. Horretantxe dihardugu.

**Euskadiko Kutxa**

**CAJA LABORAL POPULAR**
**LAN KIDE AURREZKIA**

# Gero eta borroka handiagoa

## Puntuak garesti daude Zaldibarren, hortaz baloi guztiak borrokatu beharra dago.

**Argazkiak garbi adierazten du, baloia norberaren hanketan zenbat eta denbora luzeago egon, hobeto. Norberak duenean eutsi, eta besteak duenean kentzeko ahalegin guztiak ez dira nahiko izaten.**




IKER
Moxey
FAGOR
SUKALDE-ERAKUSKETA: Udala enparantza z/g, Tfnoa: 79 00 43
BAINUGELA-ERAKUSKETA: Zarugalde 52, Tfnoa: 79 99 42

JMA JMA

## A taldea

| | Partiduak | | | | Golak | | Ptak. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Jokat. | Irab. | Ados | Gald. | Alde | Aurk. | Ttak. |
| Argi ibili | 3 | 3 | 0 | 0 | 23 | 5 | 6 |
| Artzankos | 3 | 2 | 1 | 0 | 12 | 8 | 5 |
| Bar Artano | 3 | 2 | 0 | 1 | 17 | 10 | 4 |
| Kriskibalda | 3 | 1 | 0 | 2 | 12 | 11 | 2 |
| Potrozorri | 3 | 1 | 0 | 2 | 10 | 16 | 2 |
| Zortzikin nahiko | 3 | 1 | 0 | 2 | 12 | 23 | 2 |
| Camerun´s | 3 | 0 | 1 | 2 | 6 | 16 | 2 |
| Autovia patutia | 3 | 0 | 1 | 2 | 9 | 12 | 1 |



**Fosforos**. Ezkerretik–eskumara. Zutik: Juan Mellado, Gaizka Azkarate, Antonio Amador, eta Patxi Galan. Makurtuta: Eduardo Beltran, Balentziako lagun bat, eta Jaime Carabias.

## B taldea

| | Partiduak | | | | Golak | | Ptak. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Jokat. | Irab. | Ados | Gald. | Alde | Aurk. | Ttak. |
| Golfos Persicos | 3 | 3 | 0 | 0 | 9 | 5 | 6 |
| Arrasate Kirolak | 3 | 2 | 1 | 0 | 9 | 5 | 5 |
| Adelaida | 3 | 1 | 2 | 0 | 16 | 15 | 4 |
| Bizkorrak | 3 | 1 | 1 | 1 | 6 | 5 | 3 |
| Fosforo´s | 3 | 1 | 1 | 1 | 7 | 8 | 3 |
| Sokoa 600 | 3 | 0 | 1 | 2 | 13 | 15 | 1 |
| Alperrak-Aldatz | 3 | 0 | 1 | 2 | 8 | 10 | 1 |
| Lorategi-Potroak | 3 | 0 | 1 | 2 | 6 | 11 | 1 |




**Alperrak-Aldatz**. Ezkerretik–eskumara. Zutik: Joseba Pagaldai, Narciso Pavo, Jose Ignacio Zubia, Bittor Gurrutxaga. Makurtuta:Jose Mari Carrillo, Juan Miguel Moreno, Andoni Azkargorta, eta Julian Garcia.

## C taldea

| | Partiduak | | | | Golak | | Ptak. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | Jokat. | Irab. | Ados | Gald. | Alde | Aurk. | Ttak. |
| Sum. Ind. Ugarte | 3 | 3 | 0 | 0 | 13 | 5 | 6 |
| Bar Kajoi | 3 | 3 | 0 | 0 | 19 | 8 | 6 |
| Zuloak | 3 | 2 | 1 | 0 | 10 | 6 | 5 |
| New Laso Arregis | 3 | 2 | 1 | 0 | 13 | 11 | 5 |
| Diego Antonio | 3 | 0 | 2 | 1 | 10 | 15 | 2 |
| Rayo Vatica-no | 3 | 0 | 0 | 3 | 9 | 13 | 0 |
| Pepelus | 3 | 0 | 0 | 3 | 8 | 13 | 0 |
| Los Heredia | 3 | 0 | 0 | 3 | 3 | 14 | 0 |

a.eme..interiores

GARIBAI 9
20 500 ARRASATE
(GIPUZKOA)
Tlfnoa: 943-791503
Telefax: 791489



Batzuk jokoa antolatu behar izaten duten bitartean, besteek antolamendu hori deusezteko taktika erabiltzen dute. Normalena defentsan gizon ugari jarri, eta ahal denean kontraerasora atera. Ondo eginez gero, galtzea zaila izaten da.

OPEL
Hobeak esperientziaz

TALLERES OLA, S.A.
Erakusketa Arrasaten:
Loramendi 2, Tfnoa: 79 05 86

Lorategi
Kafetegia

Iturriotz 7, Tfnoa: 79 04 67

GATZAGA
Jatetxea

EGUNEROKO MENUA ETA KARTA

*Olarte kantoia 3,*
*Tfnoa: 79 84 53*
*ARRASATE*

## EMAITZAK

**A taldea**

Argi Ibili 2 ........ Kriskibalda 1
Bar Artano 5 ........ Autovia Patutia 3
Potrozorri 3 ........ Zortzikin nahiko 6
Artzankos 3 ........ Camerun´s 1

**B taldea**

Bizkorrak 2 ........ Adelaida 3
Alperrak Aldatz 2 ........ Golfos Persicos 3
Lorategi Potroak 1 ........ Arrasate Kirolak 4
Sokoa 600 2 ........ Fosforos 3

**C taldea**

Zuloak 2 ........ Pepelus 1
Bar Kajoi 5 ........ Rayo Vatika–no 4
New Laso Arregis 4 ........ Diego Antonio 4
Sum. Ind. Ugarte 3 ........ Los Heredia 0

## ATEZAINAK

*Jesus Moreno Saria*

Migel Galan



• **5 gol.** Carlos Ros, (Bizkorrak). Angel Elkorobarrutia (Argi Ibili), Miguel Galan (Golfos Persicos), Jose Miguel Perez (Arrasate Kirolak), eta Javier Murguzur (Sum. Ind. Ugarte).

**Otsailaren 15eko Zenbaki saritua: 19.405**

**Ebaki eta gorde txartel hau!**

Trikitik eta Kajoi tabernak Walkman bat zozkatuko dute astero. Astero aterako da zenbaki bat, eta saria jasotzkeo epea 6 egunekoa izango da.

Sariturik agertu ezean, hurrengo asterako gordeko da saria, eta antzeko sariren batekin trukatu ahal izango da Trikitin.



KAJOI TABERNA

27831

**Erdiko kale 22, ARRASATE**

# Txutak

## Trenerako paseak

Asteburuan eman ziren emaitzek ez dute balio izan ezer argitzeko, zer egin handirik ez dutenak zeintzuk diren adierazteko baino. Arrazoi batengatik edo besterengatik *Autovia Patutia, Sokoa 600, Alperrak Aldatz, Lorategi Potroak, Rayo Vatikano, Pepelus, eta Los Heredia* taldeek ez dute aurrez espero zitekeen errendimendurik eman. Ekipo horien kasuan esan daiteke dauden taldeetan beltz daukatela lehenengo bi postuak eskuratzeko; hau da, hurrengo fàserako pasea ematen duten talde bakoitzeko lehen bi postuak eskuratzeko.

Joan den asteko izenburuak zioenez argi ibili beharra zegoen, aipatutako taldeak txapelketa honetan zerbait esateko azken aukera zeukatelako, eta argi dago aukera hori galdu egin zutela. Batzuk jausi dira hurrengo fasera eramaten duen trenetik, eta talde bakoitzean bi ekipo bakarrik sailkatzen direnez, beste asko jausiko dira. Ez dago konfidantzarentzat lekurik, ez erdikaldean dauden taldeentzat eta, ezta aurreneko postuetan dabiltzanentzat ere, bestela geltokian gelditu beharko dira eta, hurrengo fasera daraman bidai txartela hartu barik.

# Datorren Asteburuan

**A taldea**

| | |
|---|---|
| Argi Ibili | Autovia Patutia |
| Bar Artano | Kriskibalda |
| Potrozorri | Cameruns |
| Artzankos | Zortzikin nahiko |

**B taldea**

| | |
|---|---|
| Bizkorrak | Golfos Persicos |
| Alperrak Aldatz | Adelaida |
| Lorategi Potroak | Fosforos |
| Sokoa 600 | Arrasate Kirolak |

**C taldea**

| | |
|---|---|
| Zuloak | Rayo Vatika–no |
| Bar Kajoi | Pepelus |
| New Laso Arregis | Los Heredia |
| Sum. Ind. Ugarte | Diego Antonio |

# Golegileak

*Mikel Otxoa Saria*



Elizaran

**11gol.** Jose Martin Elizaran, (Argi Ibili).

**6 gol.** Roberto Ortiz (Artano), eta Endika Murumendiaraz, (Sokoa 600).

**5 gol.** Eleuterio Cid (Argi Ibili), eta Jesus Mari Zudaire (Bar Kajoi).

BASTIDA
• Mekanografia
• Takigrafia
• Informatika
• Kontabilitatea
• Klase partikularrak
Ferrerias 44, etxebehea, Tfnoak: 79 32 16 / 79 77 13
ARRASATE

Arrasate
OPTIKA - OFTALMIKA
ERABILI ETA BOTATZEKO LENTILAK.
ESKATU INFORMAZIOA
Kontzezino kalea 6, Tfnoa: 79 25 98

LUIS CORRA SALVARREY, S. L.
LCS
Instalazioak eta produktuak:
• Galbanizazioa
• Bibraziozko leunketa
• Pinturak
• Urak
Galdakaoko Errepidea 2, 3. Tfnoa: 94 - 416 04 70 BILBO

EU
URONDO ELEKTRIZITATEA
Nafarroako Etorbidea 11,
Tfnoa: 79 78 15 ARRASATE



# Andoni Villar

# Mendizaletasuna bihotzean

**Lehendik ere Besaideko Batzordean sartuta bazegoen ere, talde berrian lehendakari izatea egokitu zaio. Aurreko juntetan egondakoen lana eskertzeaz bat, bitarteko berriz baina ildo beretik segitu nahi du Besaidek. Andoni Villar da lehendakari berria.**

**— Zenbat bazkide ditu orain Besaidek, zer adinetakoak eta zer portzentaia federatuetan?**

— Orain 1.600 bazkide inguru gara, hortik 600 inguru mendiko federazioan eta beste 400 inguru eski sailean. Izatez, Gipuzkoan federatu gehien dugun mendi taldea gara. Adinaren aldetik, hogei bat jubilatuak dira, hamalau urtetik beherakoak 50 inguru eta hogei urte bitartekoak beste hainbeste. Gehiengo nagusia 25-50 urte bitartekoak dira.

**— Antolatzen dituzuen ekintzak?**

— Jende gehien mugitzen duena mendi irteera da. Aurtengo lehen irteera salbuespena izan da. Eskalada sailak ikastaroak antolatzen ditu, harkaitzean eta izotzetan. Espeleologi taldea ere lanean ari da, eta Zabaleta Venezuela aldera joatekotan da aurten. Eski mailan, astero antolatzen dira irteerak, denboraldi barruan. Berrogeitamar lagun joaten dira astero, eta denak bazkide ez diren arren, hori bultzatzen saiatzen gara.

**— Beste mendi elkarteekin ba al duzue harremanik?**

— Aurten senderismoa delako ekintza mugitzen hasi gara oraintxe, Murrukixo, Pol-Pol, Orixol eta Eskoriatzakoekin, denon artean antolatzeko. Bestela, irteera batzuk egiteko ere elkartzen gara, bidaia elkarrekin egiteko.

**— Batzordean ari zaretenon artean, ikusten al duzue atzetik jende gazterik errelebua hartzeko ?**

— Batzuk urte asko daramate Batzordean eta dinamika hori apurtu egin nahi dugu. Orain gaudenok aurrekoen lanarekin segitzea besterik egin, medio gehiagorekin egiten dugun arren. Guk aurrekoek egin duten lana eskertu egin nahi dugu, urte askoan lan handia egin duten eta.

Bestalde, orain kuadrila ezberdinetako jendea gaude, eta gehiago zabaldu nahi dugu, jende berria inplikatu, beti berdinak ibili barik. Bi helburu lortuko genituzke horrela: barruko jendea ez erretzea, eta jende berria erakartzea. Gazte-gazteak berriz, besteok egiten ditugun ekintzak egiten ari dira, eta hain pobre gera ez dadin, mendiak zer eman dezakeen ikus arazi nahi diegu . Ez bakarrik mendira joan, garai bakoitzak zer medio eskatzen duen ikusi: adibidez, neguan elurra medio bezala aztertu, pioleta eta kranpoia erabiltzen, rapelak egin, elurretan ibili, etab. Guzti hori jendea eta batzordea berritzeko helburuaz.

**“ Aurreko zuzendaritzaren lana eskertu eta hari jarraitzen ari gara**

**— Alabittako aterpetxearekin zer filosofia daukazue?**

— Jendearen mentalitatean hara juergak egitera joatean dago. Baina behin arazoak sortu ziren asteburua pasatzera eta mendiko trabesia egitera joandako bi talderen artean eta ordutik erabakia hartuta dugu: hura aterpea da, eta aurrez eskatu behar denez, joango den jende kopuruaren arabera, bi talde sartzen badira, bi. Guztira orain hamar bat lagunentzat dago lekua, baina handitu eta berritzeko proiektua dago orain. Margotu, beste egitura bat eman eta sukaldea ere hobeto hornitu, nahiz eta ez jakin zenbat denboraren buruan egingo den hori.

**— Inguruko beste herri batzuetan mendiko taldeen barruan talde naturzaleak ere badira. Besaiden ez al dago halakorik?**

— Bergaran adibidez, Mendia Bizirik Pol-Polen barruan dago, baina nik dakidala, Murrukixo eta Amilotx aparte daude, jendea bera izan arren. Guk ere ikusten dugu horren beharra, baina momentu honetan ez dugu gaitasunik jende aldetik. Aipatutako talde horiek lan handia ari dira egiten, eta linea batean, gainera. Arrasate mailan lan egin dugu ekologian baina dauden taldeak nahiko politizatuta daude, lana politikoki egiten dute, ez ekologikoki. Helburu bezala badaukagu ere, oraingoz ezinezkoa da, jende gehiago izan barik. Gainera ezin da edozein izan, oso inpartzialak baizik, politikoki erraza da eta manipulatzea. Guk argi daukagu Besaide denona dela, eta denotariko jendea dagoela.

# Igandean Euskadiko Kros Txapelketa Almenen

### *Senior mailako lasterketan pronostikoa oso zabala.*

Almen Kirol Elkarteak antolaturik, igande goizean 10etatik aurrera Euskadiko Kros Txapelketa burutuko da, Ikastola barreneko zelaietan.

Dudarik gabe, lasterketa interesgarriena senior mailako gizonezkoena izango da. Martin Fiz, egun senior mailan Euskadin dagoen korrikalaririk azkarrena, ez da Almeneko zelaietan izango. Arabarra Almenera ez etortzearen arrazoia, Euskaditik kanpoko klub batean aritzea da, Txapelketan parte hartzeko ezinbesteko baldintza da eta.

Martin Fizek korrituko ez duenez, pronostikoa askoz ere zabalagoa da, faborito gehiagorekin: Diego Garcia, Garin anaiak, Apalanza, Sarriegi, etab. Deba Garaiko korrikalariei dagokienez, denboraldiko emaitzen arabera, Antonio Merino antzuolarra izango litzateke aipagarriena.

Eguraldi ona egiten badu, korrikalariek ez dute aparteko zailtasunik izango, ibilbidea gehienbat laua da eta. Besterik gerta daiteke eguraldi euritsua suertatuz gero, oso inguru biguna delako eta ondorioz, lokatza berehala ateratzen delako.

Lasterketak ikustea dohainik izango da, antolatzaileek borondatea eskatzeko asmoa badaukate ere.



| Maila | Helduak | Juniors emaku. | Juniors giz. | Seniors emaku. | Helduak emaku. | Seniors giz. |
|---|---|---|---|---|---|---|
| Orduak | 10.00 | 10.35 | 11.10 | 11.50 | 11.50 | 12.20 |
| Mtak. | 5.470. | 4.260. | 7.600. | 5.470. | 3.340. | 11.860. |
| Itzuliak. | 2 handi txiki bat | 2 handi. | 3 hand txiki bat | 2 handi txiki bat | handi bat txiki bat | 5 handi txiki bat |





## *Pilota partidu berezia*

Eskuz-eskuzko bigarren mailako profesionalen pilota txapelketa martxan dago, eta astelehenean Tolosako Beotibarren, arratsaldeko 4.30etatik aurrera partidu berezia jokatuko da. Alde batetik Juan Jose Urrak jokatuko du, arrasatear pilotariak, eta bestetik Juan Luis Irazolak, atxondotarra baina Arrasaten taxista lana egiten duena. Azken honen botileroa Agustin Beitia "Xipri" izango da, eta diotenez, ardura handiz dabil partidurako taktika prestatzen. Enpresetakoek bista apur bat izan balute, partidu hau ez zen Tolosako frontoian jokatuko.

Kabia altzariak
Gipuzkoako Etorbidea 28, Tfnoa: 79 27 70 ARRASATE

BRANKA
jatetxea
Eguneko menua eta karta

# PODIUMA

## JON UGALDE
## Udalaitzekin maiteminduta



Jubilatu zen egun berean, Jon Ugaldek Udalaitzeko maldak igo zituen. Denbora pasatu da eta orduko igoera hura ohitura bihurtu zaio, ia egunero Udalaitzera igotzen bait du. *"Eguraldi oso txarra dagoenean ez dut igotzen, orduan gehienetan Urkulu ingurura joaten naiz".*

Sarritan egiten du eguraldi txarra inguru hauetan, baina hala ere Jon Ugaldek ohiturari eusten dio. 1987. urtean, Udalaitz 222 bider igo zuen, 1988.ean 160 bider, 1989.ean 219 bider, eta 1990.ean 201 bider. *"Etxetik gailurreraino, hau da Garibaitik, ordu t'erdi baino gehixeago egiten dut. Bastoia eskuan hartu eta lasai, lasai igotzen dut. Ogitartekorik eta ez dut eramaten, gero bazkaltzeko gogo handiagoa ekartzeko. Goizean kafesnea sopekin hartu eta listo".* Jon Ugaldek 67 urte dauzka. Behar bada horregatik eta duen sasoia ikusirik, bere adin ingurukoek 100 urte hartuko dituela esaten omen diote. *"Udalaitzera egunero igotzeagatik 100 urte hartuko ditudala pentsatuko balute, eurek ere laster igoko luke te".*

Udalaitzera ahal duen guztietan igotzea, ura edatea bezain beharrezko egiten omen zaio Jon Ugalderi. Gehienetan bakarrik joaten bada ere, jende gehiago ba omen dago zaletasun berberaz. *"Niretzat Udalaitz Euskadiko Cervino-a da, eta ez niretzat bakarrik, jende gehiagok ere egunero igotzen du eta. Badira bi lagun, errelebotan lana egiten dutenak eta egunero igotzen direnak, Santi Arregi eta Gregorio Agirre. Horietaz aparte, Martin Arregik, 70 urteko gizonak Udalaitzeko bidea astean hiru edo lau aldiz egiten du".*

Egunero igotzea gutxi ez bada, egun berean pare bat aldiz ere Udalaitzeko bidea egin izan du. *"1982an, bi bider igo nuen, toki desberdinetatik. 1985ean berriz, hiru aldiz igo nuen, orduan ere toki desberdinetatik. Egun berean, beste bi lagunek bost aldiz igo zuten, Gerardo Jauregi eta Alberto Balzategik. Goizeko seietan hasi eta arratsalde laurak arte bueltaka ibili ziren, guk eguerdiko hamabiak ingururako bukatu genuen bitartean. Orain ez dakit egingo nukeen, baina saiatu bai behintzat!".*

### ◆ Gay gaizki

Esperantza handirekin joan zen Josean Gay, Sevillan pasa den asteburuan jokatu ziren Estatuko Txapelketetara, baina ez zuen ezer asko egin. Frogei hasiera eman aurretik, gutxienez 400 metroko finalera iristea espero zuen arrasatearrak, baina erdi-finaletara iristerik ere ez zuen izan. Sailkapeneko lasterketan 49-63ko denbora egin zuen, era horretan kanporatu zelarik.

### ◆ Mondrak gutxigatik galdu

Gol bakar bategatik galdu zuen Mondrak joan den igandean Irungo Real Unionen aurkako partiduan. Arrasatearrek, lehen zatian hobeto jokatu zuten eta ondorioz markagailuan aurrea hartu, Aranburuzabalak sartutako golari esker. Bigarren zatian irundarrek jokoa asko hobetu zuten, eta garaipena emango zieten bi golak lortu.

### ◆ Centraljet garaile Donostian

Arrasateko saski-baloi taldeak ez zuen aparteko eragozpenik izan Atletico San Sebastian-en aurkako partidua irabazteko. Partidua tramite hutsa zen arrasatearrentzat, igoera fasea jokatzeko sailkatuta bait zeuden, baina ez zuten barkatu. Azken emaitza: Atletico SS-61, Centraljet 66.

### ◆ San Andresek berriro galdu

Liderra bisitatzen zuten Luengoren mutilek, eta espero zitekeen bezala, galdu egin zuten. Hori bai, azkenengo partiduekin konparatuz gero, askoz ere hobeto ibili ziren arrasatearrak. Partiduko lehen zatian, aukera hoberenak San Andreskoentzat izan ziren, baina ez zituzten gauzatu. Bigarren denboran arrasatearrek azkenaldiko irudi bera erakutsi zuten, beraz ez da arraroa azkeneko emaitza 4 eta 0koa izatea, Abetxuko taldearen alde.

egizabal

*Bidekurutzeta 13, BERGARA*

Elisabete

# Stressa eta kirola

Herstura edo antsietatea, stressa, depresioa… eragozpen psikologikoak dira, eta hauek gure gizarteko kide gehienok ukitzen edo harrapatzen gaituzte, neurri ezberdinean bada ere. Iragankorrak izan daitezke, baina asko dira ekonomi, lan edo famili arazoengatik honelako herstura eta stress egoeretan murgildurik bizi direnak eta noizean behin depresioak jasan behar izaten dituztenak, ondorioak bizimodu osoan agertzen direlarik.



1965. urtean "Kirolgintzaren Psikologia" aztertzeko Erroman egin zen munduko lehen kongresuan argi eta garbi geratu zen iharduera fisiko eta kirolgintzaren balioa bai eragozpen psikofisikoen prebentziorako baita berorien tratamentuan ere.

Badirudi sistematikoki egindako iharduera fisikoak gorputza menperatzen laguntzen duela eta aldi berean inguruko giroa menperatzeko ahalmena ematen duela.

Fisikoki edo gorputzaren aldetik pertsona gogor eta erresistenteago bihurtzen den neurrian, berdin gertatzen zaio psikikoki edo izpirituaren aldetik ere, bi arlo hauek ezin bait dira banatu.

Ingurunearen presio pean dagoenean pertsona, stressa eta herstura maila ere areagotuz joaten da.

Pertsona batek bere "ni"a ahulduta eta aparatu psikikoa gaizki egituratua izanez gero, asko sufritzen du ingurunenko stressarekin; baina bere "ni" hori gogor eta sendo baldin badu, ez du eragozpenik izango kanpo-estimulu horiei aurre egin eta garaile izateko.

Pertsonak beti baloiztatzen du bere garapen fisikoa, eta era berean baloratzen dute ingurukoek ere, horrela praktikatzailearen autoestima areagotu egiten delarik. Sinbolikoki, bizitza ere lasterketa bat da, non bakoitzak oztopo ezberdinei aurre egin behar izaten dien: nekea eta mina, abiadura eta erritmoa, garaipena eta porrota txandakatzen direlarik.

Lasterketa bat hasi eta amaitzen duen korrikalariak, ibilaldi laburrean izanda ere, bere "ni" hori saritua sentituko du, bere gogortasuna eta ekimena sendoturik geratuko diren neurrian.

Gertaera psikofisiko erregular hau prestaketarik egokiena da bakoitzaren lehiaketa nagusirako, hau da, norberaren bizitzarako.

*Eukeni & Arantxa.*


## Martxorako Kultur Ekitaldiak

**• ZINEA**
**"Sexoari buruzko zikloa"**

**• ANTZERKIA**
**Martxoak 1, "Juego de niñas"**

**• DANTZA**
**Martxoak 9, "Lore Gazteak" eta Gasteizko "Adurtza" taldeak.**

# Batuta

## Leticia Bibolini



Gurasoak italiarrak izan arren, Argentinarra da bera izatez, eta musikoa ez bada ere, bizi guztian zehar izan du musikarekin harreman handia. Buenos Airesko Colon antzokiko administratzailea izan zen bere senarra 1955era arte. *" Ezagutu nituen divoen artean, Claudia Mucio soprano handia eta bere hauts indartsua zein eszenako itxura galanta, Lucia obran Lili Ponsen ahots garden eta zorrotza, eta Toscanini zuzendari handia eta Victoria de los Angeles gogoratzen ditut"*. Horietako zenbaiten oroigarri, dedikatutako argazkiak ere baditu gordeta Leticiak. Orain penagarri erizten dio bere herriko egoera ekonomikoari, eta gauzak guztiz aldatuta egongo diren arren, orduan estreinaldiak benetan galako izaten ziren.

Hamalau urte dira bere herritik hona etorri zela -orain 81 ditu- eta hasieran egokitzea kosta egin bazitzaion ere, gustora dago orain Arrasaten, *"denekin konbersatzea"* gustatzen zaionez, denekin hitz egiten du eta. Euskaldunak *"makanudoak"* iruditzen zaizkio, *"eta iristea kosta egiten den arren, iritsitakoan oso osorik ematen dute euren burua"*. Altamiran bizi denez, kalean ibiltzeko bere zaletasunari Uherkapeko obrek jartzen diote muga, *"bahituta naukate, hortik ezin naiz jaitsi, eta ez dago eskubiderik, hori behintzat jar ezazu"*.

Familia guztia da musikazale amorratua, eta argentinar on bezala, tangoa da gehien maite duena, eta dantzan ere auskalo zenbat egin duen. Hemengo musika atsegin du, eta abesbatzetarako dagoen zaletasunak eta koru bikainek txundituta uzten. Gauza batek harritzen du, hala ere: zergatik ez ote dagoen hemen besteen gainetik destakatzen duen bakarlaririk. *"Zoragarria iruditzen zait edozein ospakizunetan kantuan hasteko daukazuen ohitura"*.

Agurtu ere egin behar, eta *"hurrengo arte"* batekin agurtu nau amona maitagarri honek: *"nahi duzunean etorri tangoak entzutera"*.

**Harrigarria iruditzen zait *divo* euskaldunik ez izatea**

# Txio txioak

**Arrasate Musikal eskoletan**

Duela pare bat astetik hona, Arrasate Musikaleko bi irakasle Arrasateko eskola publikoetan 6 eta 7 urtetako umeei eskolak ematen ari dira. Klase hauen helburua umeak musika ezagutzen hastea izango litzateke, gero instrumentu edo musika ikasketak aukeratzeko orduan ikuspegi zabalagoa izan dezaten. Oraingoz, ikastaroan bakarrik eskola publikoetan ematen ari badira ere, asmoa ikastola eta eskola pribatuetara zabaltzea da. Horretarako ikastetxe desberdinekin harremanetan dabiltza Arrasate Musikalekoek, orain arte uste bait dute musika ikasketei ez zaiela jaramon handirik egin.

**Santa Ageda koruak**

Igandera arte zehatz-mehatz jakiterik ez badago ere, esan behar da Santa Ageda koruek otsailaren lauean egindako ateraldian milioi bat pezeta baino gehiago jaso zutela. Urtez urte diru gehiago jasotzen dute Santa Ageda koruek, eta igandean Udalpen burutuko den bileran, pintxoak jan eta salda hartzeaz gain, aurtengo diru kopurua zenbatekoa den jakingo da.









# Alfabetizazioa dela eta... (VII)

**Yoga Ekartea**

Yogaren filosofiaren barnean kokatzen dira Yoga Elkatearen helburuak. Yogak batasuna esan nahi du. Eta batasun hau bi mailatan ikusten da: alde batetik, norberak, kontrol mentalaren bidez eta autoezagupenaren bidez, bere buruarekin lortzen du batasuna; eta bestalde, batasuna bestearekin ere bada, bi aldeak -norbera eta bestea- guztiz lotuak bait daude: nork bere burua aurkitu ez badu, ezin da bestearengana heldu; eta ezin da hausnarketa edo meditazioa egin norbera ondo sentitzen ez bada bere buruarekin.

Esparru honen barruan antolatzen ditu ekintzak Yoga Elkarteak. Hona hemen hauetariko batzuk:

• Yoga hasteko ikastaroak

Astean bi egunetan burutzen dira. Saio bakoitza bi ordukoa da, honako bi arlo hauek aztertuz: hasierako lasaiketa (norberaren gorputzari buruz kontzientzia hartzeko), arnasketa (teknikak ikastea) ariketa fisikoak, bukaerako lasaiketa (zentzu globala duena), eta, amaitzeko, denon arteko elkarrizketa inpresioak, bizipenak eta zalantzak argitzeko.

Ikastaroaren barnean, klase bat filosofiari buruz izaten da eta beste bat elikadurari buruz.

• Yoga hobetzeko ikastaroa

Astean bi egunetan burutzen da eta yogan hasita daudenei zuzentzen zaie. Yogaren jarraipena, mantenimendua eta hobekuntza da honen helburua.

• Masajea eta automasajea

Maila ezberdinetako ikastaroak ematen dira eta teknika ezberdinak ere irakasten dira: "reflexologia podal" deiturikoa, masaje lasaitzailea, kiromasajea...

• Sendabelarrak aztertzeko taldea

Ikasteko taldea da, bertan informazioa elkartrukatu eta sendabelarrak aurkitzeko irteerak egiten direlarik.

• Beste hainbat taldek, beste zenbait ekintzetarako Yoga Elkartearen lokalak erabiltzen dituzte, hala nola: kontrol mentalerako taldeak, aholku eta laguntza taldeak, xake taldeak ...

Pertsona batzuentzat, emakume nahiz gizon, eta edozein adinekorentzat dago irekita Yoga Elkartea. Bere egoitza Altamira auzoan du, J.L.Iñarra Pasealekuan 26-28, tel. 79 35 76, eta arduraduna Jose Luis Armendia.

*Klarion taldea*

**BULARREKO PATOLOGI UNITATEA**

**Mamografia**
**Gune susmagarriak aurkitzea.**
**Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.**
**Bularreko ekografiak.**
**Bularreko tumoreen zitologia.**

**Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.**

**GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA**



**DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIONDO, OTALORA, RUIZ.**

**Zerkaosteta 17, etxabehea. Tfnoa: 79 20 18 ARRASATE**

# Lurdes Azkoaga



*Bastida Akademiakoa*

Kostatu zitzaion bai Lurdesi gidatzeko karneta ateratzea, *"teorikoa lehenengoan pasatu nuen, baina praktikoan hanka sartzen nuen aldatzetan. Zazpigarrenean atera nuen"*. Hala ere ez du istripurik izan, *"poliki gidatzea gustatzen zaidalako"*. Semaforo eta zebrabideak errespetatzen dituenez, ez du inoiz multarik jaso. Mekanikaz ez daki ezer asko, eta gurpila zulatu zuen lehen aldian kamioilari bati laguntza eskatu zion, *"berarentzat ere zaila izan zen. Gero beharko ikasi, aste batean hiru aldiz pintxatu nuen"*.

**BULARREKO PATOLOGI UNITATEA**

**Mamografia**
**Gune susmagarriak aurkitzea.**
**Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.**
**Bularreko ekografiak.**
**Bularreko tumoreen zitologia.**

**Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.**

**GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA**



**DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIONDO, OTALORA, RUIZ.**

**Zerkaosteta 17, etxabehea. Tfnoa: 79 20 18 ARRASATE**

# Irati-Irabian bizikletan

Besaide Mendizale Taldeko txori batek esanda, aurki Irati Irabiara aldera joateko asmoa dago Besaiden. Baina hori egia izatekotan, jakingo duzue noiz eta non joan.

Nik Miguel Anguloren liburuan dauden gomendio batzuk baino ez dizkizuet aipatuko.

Zalantzarik gabe, inguru hau zeharkatu eta «pateatzeko» sasoirik egokiena udaberri amaieratik udazkenera artekoa da. Garai honetan lokatzarie baino ez duzu aurkituko. Interesgarria litzateke hegoalderantza ematen duten mendialdeak ezagutzea, paraje horiek lehorrago aurkituko dituzue eta.

Oso garrantzitsua: larreak eta artaldeak bakean utziko ditugu, lasaitasunean bizi daitezen. Beraz, bideetatik ez urten eta bidea eman oinez doazenei eta artaldeei.

Ibiltzen hasi baino lehen, maparen bat aztertzea ere bidezkoena litzateke; seguruena horixe izango da geure burua galdu gura ez badugu, laino eta basoan zehar. Erreminta kaxa bat ere eroan beharko duzue! betiko erremintak, kamaren bat eta bestelakorik. Horrelako lekuetan tako handiko gurpilak eroatea da onena eta gainera, ez ahaztu eskularruak, kaskoa eta enparauak.

